

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko azaroaren 7a • IV. urtea •

130. zenbakia • DOAN BANATZEKO



MARIO SANZ

"Heriotza duina izateko nahia adierazten du Bizi Testamentuak" /7

KIROLAK

Kepa Zelaia medikua US Postal txirrindulari taldeak fitxatu du /11

Goienka2a

Sendabelarren gaineko ikastaroa abian dago Bergaran

BARRUAN, UMEEN GAINKO GEHIGARRIA: HAURDUNALDIA, JOSTAILUAK, MODA...

ASTEKO GAIA: MINBIZIA DEBAGOIENEAN /2-3

Ibarrean eta Europan egoera bera

Beldur handia pizten jarraitzen du minbiziak. Azken urteotan minbizi kasuak ugartu egin dira, eta hala sumatu dute debagoien-dar askok. Baina adituek dioskute ez dagoela neurritz kanpo ardu-

ratzeko arrazoirik: gero eta minbizi kasu gehiago daude herrialde garatuetan, gero eta luzeago bizi garelako. Bizi-ohiturak zainduz, gainera, minbizi kasu gehienak prebenitu egin daitezke.



GOIENKARIA

Militarrak, Debagoienez ere bai

Espainiako Armadako soldaduak Euskal Herrian barrena ibili dira maniobrak egiten. Toki askotan ikusi dituzte, helikoptero eta guzti. Gure ibarrean ere ibili dira: Urkulun, Apotzagan, Aramaion, Elgetan... Azken honetan, gainera, Herriko Plazan ibili ziren arma eta guzti, neska-mutikoen artean. Argazkia Elgetan atera genuen martitzenean, kanposantutik gertu. Hainbat indar politikok protesta egin dute militarrek herri barruetaraino armekin sartu direlako. /4

Eroskik auzitara jo du ETArekin lotu dutelako

Talaverako Enpresaburuen Federazioko idazkariak, Eroskik ETArekin zerikusia duela salatu berri du. Hori dela eta, Eroskik auzitara eraman du. Eroskik hipermerkatua jarri nahi du Talaveran (Toledo). Talaverako Enpresaburuen Federazioak gogor egin du

azkeneko sei urteotan Eroskiren asmo horren aurka. Orain dela gutxi, federazioko kideen artean mezu elektronikoa bat zabaldu zuten eta mezuan esaten zen Eroskik eta bertako langileek ETA erakundearekin zerikusia zutela. Eroskik auzitara jo du. /5

BERGARA

Azkenean, estraditatu egin dute Alemaniatik Paulo Elkoro

Eguazten arratsaldean iritsi zen Paulo Elkoro Madrilgo Barajas aireportura, Alemaniatik. Auzitegi Nazionaletik pasatu ondoren, Soto del Realgo espetxera eraman zuten. Urtarrilean atxilotu zuten Elkoro Alemanian eta ordutik hona preso egon da hantxe. Bergaran manifestazioa egin zuten egiaren iluntzean. /4

LEIZE Z E GAZTE MODA

Secundino Esnaola 13 DONOSTIA Fraiskozuri 5 BERGARA Olarte 5 ARRASATE

Goza ezazu bideaz minutuz minutuz

Udalaitz Polo Match

Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Minbizi kasuak goraka gu

- 1994-1998 urte artean beste 1.192 kasu izan ziren ibarrean
- Ibarreko tasak guztiz normalak dira mendebal gizartean
- Minbizi kasu gero eta gehiago dago, bizi-itxaropena luzeagoa delako gaur egun



Medikuntzak eskaintzen ditu minbiziari aurre egiteko gero eta modu hobekak.

ONKOLOGIA INSTITUTUA

LEIRE KORTABARRIA

Minbizi da Europan eta, oro har, mendebal gizartean –Debagoienak ildo hori jarraitzen du– bigarren heriotza kau-

sa, bihotzeko gaitzen ondoren. Gizonezkoen heriotzen %30 minbiziagatik dira eta emakumezkoen %20.

Baina minbiziaren inguruko errealitatea aldatzen joan da azken urteotan, eta datuek

argiak eta itzalak botatzen dituzte.

Alde batetik, gero eta gaixo gehiagok lortzen dute minbizi gaintzea. Medikuntza aurrerapenei esker, gero eta lehenago antzeman daiteke tumorea, eta

tratamenduak ere goiztiarragoak eta eraginkorragoak dira. Baina beste alde batetik, gero eta minbizi kasu gehiago dago Gipuzkoan, beste lekuetan bezalaxe. Jendeak hori sumatu egiten du, eta horrek ekar dezake neurrik kanpoko beldurra, edo gure ingurunean beste inon baino minbizi kasu gehiago dagoen impresio subjektiboa.

BIZI-IRAUPEN LUZEAGOA, ARRAZIOA

Horrek ez du inongo funtsik; izan ere, minbizi kasuak ugartzen doaz Debagoienan, bai, baina Europako beste lekuetan bezalaxe. Horrek bere azalpena du: “Populazioaren bizi-iraupena luzatzen doa, eta, populazioa zaharragoa izanik, minbizi arriskua handitu egiten da”, diote Gipuzkoako Osasun Saileko Epidemiologiako arduradunek. Beste alde batetik, lehen sendaezinak ziren gaixotasun batzuk orain sendatu egiten dira. “Lehen, jendea tuberkulosiak, apendizitisak... jota hiltzen zen. Orain ez da hori gertatzen”, azaltzen du Donostiako Onkologia Institutuko aditu Maria Jesus Mitxelena doktorea. Adibidez, prosta-

ta minbizi eta, emakumeen kasuan, bular eta ugaltze-aparatu minbiziak ugariagoak dira gero eta adin altuagoetan. Datoren 8 urteotan aurreikusten da gizonezkoetan %40 kasu gehiago izango dela eta emakumezkoetan, %30. Hala ere, diagnostiko goiztiarrek tasa horiek egonkortuko dituztela uste da.

Osasun Sailaren datuek ere normaltasuna adierazten dute. 1994-1998 tartean, Gipuzkoan, 100.000 biztanletik 430eko minbizi tasa egon zen; Debagoienan, 367,3koa izan zen tasa hori. 1.192 minbizi kasu diagnostikatu ziren tarte horretan Debagoienan. “Debagoieneko eta, oro har, Gipuzkoako tasak eta minbiziaren eragina mendebal Europako berberak dira. Aldeak ez dira esanguratsuak”, dio Mitxelenak.

PREBENTZIOA

Zenbat eta luzeago bizi, hortaz, orduan eta aukera gehiago dago minbizi izateko. Baina gaitz hori prebenitzeko norberak duen jarrera oso esanguratsua da. Adibidez, Europako herrialde batzuetan –Finlandia, Austria eta Erresuma Batuaren kasua da hori–

kutxaZabal

A T E C E R E K I N



Kutxaren Gizarte-Ekintzaren KUTXAZABAL programak egitasmo berri bat egia bihurtzeko lan egin du. Horretarako, Arrasaten eguneko zentro bat eraikitzeko diru-laguntza eman du, Debagoiena eta Debabarrena eskualdeetako buruko gaixotasuna duten pertsonentzat. Ekimen honen sustatzailea ATECE da, Eskuratutako Buruko Gaixotasunaren Aldeko Gipuzkoako Elkarteak. **Kutxak**, aurtan, 5 milioi euroko diru-laguntzak eskainiko dizkie 35 erakunderi, gizarte eta laguntza premiak dituzten taldeak zaintzeko, eta ATECE horietako bat da.



kutxa
gizarte ekintza

Hilkortasun handiena duten tumore guztiak prebenitzea gure esku dago

Medikuntzak ahalbidetu du azken hamarkadotan kasuen erdia sendatzea

rean, European bezalaxe

minbizi kasuak gutxitu egin dira. Eta horren zergatia da populazioa kontzientziatuagoa dagoela eta prebentzioaren aldeko apustua egin duela.

“Minbizi mota guztiak ezin daitezke prebenitu; adibidez, burmuineko tumoreak. Baina gehienak prebeni daitezke. Bizi-estiloarekin zerikusi handia du”, diosku Maria Jesus Mitxelena doktorea. Jo dezagun berriro datuetara: Debagoienean, European bezala, biriketako (gizonezkoetan) eta bularreko (emakumezkoetan) tumoreak izan ziren nagusi (100.000 biztanletik 77,8k eta 90,5k izan zuten, hurrenez hurren; Gipuzkoan, 82,9 eta 100,2); bigarrena, sexu bietarako, kolon eta hesteetako minbiziak izan zen.

60.000 KASU EKIDIN

Adituek esaten dute datozen urteotan biriketako minbizi kasu gehiago egongo direla emakumezkoetan. Horrek zerikusi handia du gero eta emakume erretrazile gehiago egotearekin. Gaur egun, Estatu osoan, tabakismoak minbizi kasuen %30 eragiten du, Espainiako Onkologia Medikuntza Elkartearen datuen arabera. Gehiago esan daiteke: AEBetako Medikuntza Institutuaren esanetan, 60.000 minbizi kasu inguru ekidinduzkoak lirateke ohitura batzuk aldatu edo hobetuz gero. Donostiako Onkologia Institutuak honela diosku: “Dietari egoki eta bariatua jarraitu behar dugu, fruitu, barazki eta lekale askorekin; koipe askorik ez hartu, eta okela gorri gutxiago jan; ariketa fisikoa egin; alkohola eta tabakoa alde batera utzi, eta eguzki gutxiago hartu”.

Bestalde, medikuntzak eta Europako gobernuek aurrerapauso handiak eman dituzte. Horiei esker, prebentzio programa eraginkorragoak daude abian, eta horiek minbizi kasuak gero eta lehenago antzematea posible egiten dute.

GEHIENEK GAINDITZEN DUTE

Medikuntzak posible egin du minbiziak eragindako heriotza kopuruak behera egitea, azken urteotan. Adituak baikor dira

MONTSE ARANBURU / MEDIKUA

“Minbiziaren prebentzioa da gaitzaren sendaketa, eta baita bizi-kalitatea ere”

Montse Aranburu doktorea bergararra da eta betidanik egin du lan bere jaioterrian. Berak argibide gehiago eman digu minbiziaren inguruan, eta baita Debagoieneko egoeraren inguruan ere.

Minbiziak faktore askok eragindako gaitzotasuna dela esaten da. Horrek zer esan nahi du?

Esan nahi du bere jatorrian eta garapenean hainbat kausa edo faktorek hartzen dutela parte. Faktore horiek dira, batik bat, honakoak: alkohola, tabakoa, elikadura, ingurumenaren kutsadura, ariketa fisikoa eza eta faktore genetikoak. Faktoreok eragina dute, ez bakarrik minbiziak sortzeko unean; izan ere, faktoreok elkar indartzen dute.

Zuk ikusi duzunaren arabera, zein minbizi mota dira arruntenak hemen?

Denetariko minbiziak ikusi eta tratatu izan ditugu. Gaixo gehienak izaten dira 45 urtetik gorako pertsonak.

Zein da minbiziari aurre egiteko modurik eraginkorrena?

Prebentzioa. Prebentzioa da gaitzaren sendaketa, eta da bizi-kalitatea. Diagnosi goiztiarra eginez gero, aukera gehiago dago sendatzeko. Gogoan hartu behar da gehien ematen diren bi tumore motak -biriketakoa eta bularrekoa- ondoen eta goizen prebenitu daitezkeen tumoreak direla.

Oraindik ere, jende asko etortzen dela minbizi neurri batean garatua dagoenean edo zerbait txarto dagoela igartzen dutenean. Kontuak kontu, minbiziak jarraitzen du bigarren heriotza kausa iza-

horren gainean: diote epe luzera hilkortasunak behera egiten jarraituko duela. European, hilkortasun tasak asko jaitsi dira azkenaldian: gizonezkoen kasuan, %10 jaitsi zen; emakumezkoenean %8an, nahiz eta Espainiako Estatuan aurkakoa gertatu den eta %11 batean igo den hilkortasuna gizonezkoetan, baina beti ere, adituen esanetan, Estatu osoko elikadura ohiturak

aldatu egin direlako eta gure betiko dietatik urrundu garelako.

Kontuak kontu, minbizi kasu asko prebenitzea gure esku dago, eta bizi-ohitura osasuntsuak jarraituz gero, oso-osorik ez bada, oso neurri handi baten arrisku hori saihestu dezakegu. Maria Jesus Mitxelena Onkologia Institutuko arduradunak diosku: “Beste edozein gaitz bezala ikustea komeniko litzateke. Gero eta

jende gehiagok gainditzen du minbiziak. Edozelan ere, gizartean gaitzotasun-tabu bat izaten jarraitzen du minbiziak, eta jendeak beldur handia izaten jarraitzen dio”.

Hortaz, alde batetik, gizarteak beldurra badi ere gaitzotasun horri, beste alde batetik gero eta jende gehiagok erabakitzen du minbiziari argi eta ozen berba egitea. Hori izan zen, adibidez, Joxe Arantzabal mondragoeta-

ki-erredurak saihestu, haurtzarotik hasita; Debagoienean industria giro handia dagoenez, kartzinogeno edo sustantzia toxikoak alboratu; elikadurari dagokionez, barazki, fruitu eta fibra ugari hartu; ariketa fisikoa egin eta pisua zaindu... Horrez gain, jendeak sumatzen badu orbainen bat formaz aldatu dela edo ez dela ondo osatzen; konkurren bat irten zaio... edo joaten ez zaion sintomaren bat duela (etengabeko eztula, argaltzea...), medikuarengana joan. Argibide gehiago nahi dutenek badute Minbiziaren Aurkako Elkarteak ipinitako telefono bat: 900 10 00 36 zenbakia.

Badago jarraitu beharreko aholku zehatzagorik?

Bai. Gizonezkoen kasuan, prostata minbiziak prebenitzeko ukipen rektalak egin behar dituzte, 45 urtetik aurrera, urtero. Emakumeek mamografiak, zitologiak eta azterketa ginekologikoak egin behar dituzte 50 urtetik aurrera. Horrez gain, bestelako gaitz kronikoak dituztenek -diabetesa, tentsio altua...- sarriago egin behar dituzte behar diren mediku azterketak.

Debagoiendarrok kontzientziatuta gaude minbiziari dagokionean?

Tira, hemen *poteoan* joateko ohitura handia egon da beti, baina azken urteotan asko jaitsi da. Bestalde, gero eta debagoiendar gehiagok egiten dute ariketa fisikoa, mendira joaten dira... eta gero eta gehiagok, baita, esaten dute erretzeari utzi nahi diotela. Elikadura aldetik, uste dut ibarreko jendeak asko zaintzen duela bere burua. Eta umei ere heziketa hori ematen ari dira. Oro har, jendeak badaki arriskua dagoela, eta bizi-ohitura hobekitu dituzte orain.



“Debagoiendarrok kontziente dira arriskuaz, eta bizi-ohitura hobekitu dituzte orain”

ten, bihotzeko eta garuneko gaitzotasunen ondoren.

Esaniezaguz, bada, zer egin behar du gurekin prebentzio moduan...

Aholku orokor batzuk hauek dira: ez erre, edo erretzeari utzi; alkoholik ez edan; eguz-

ZER DA MINBIZIA?

Zelulei eragiten die minbiziak, eta gorputz osoari eragiten dio

Minbiziak zelulei eragiten dien gaitza da. Zelula normala gaizto bihurtzen da bere ADNan mutazio edo aldaketa bat ematen denean. Batzuetan, aldatu diren zelula horiek ezabatu egiten dira ganglio linfatikoetan; baina, beste kasu batzuetan, bizirik jarraitzen dute eta ugaltzen egiten dira. Ezin dituzte euren funtzio normalak egin. Euren hazkuntza kontrolatzen kanpo dago, eta ugaltzen eta organoetara euren lana oztapatzen diete.

ITXAROPENERAKO DATUAK

Medikuntzaren aurrerapenei esker, kasuen erdia osatzen da

Minbizi mota guztietatik pronostiko txarrenak dutenak dira buruko tumoreak (baina gutxiak dira) eta biriketakoak. Azken honek eragiten ditu heriotza gehien. Bestalde, bularreko minbiziak eta minbizi ginekologikoak ondoen erantzuten diote tratamenduari. Urdaileko tumoreetan ere hilkortasuna jaitea lortu da. Orain 10-15 urte, tumoreen %35 bakarrik osatzen zen; gaur egun gaixoen %50 sendatzen da.

BIZI-OHITURAK


Zenbaterainoko zerikusia dute ohiturek minbizi arriskuarekin?

Minbizi mota gehienek gure ohiturekin zerikusia dute. Hain zuzen, AEBetako ikertzaileen arabera, lodierak 14 minbizi kasuarekin harremana du. Tabakoa tumoreen %30 eragiten du; alkoholak, %4; eguzkia larregi hartzeak, %3; elikadura desegokiak (okela eta koipe larregi eta barazki eta arrain gutxiegi, oro har) %35ean du eragina; eta gaizki osatutako hainbat infekzio biririkok kasuen %15ean du eragina.

LEHEN HERIOTZA KAUSA

Hiru gizonezkoetako bat minbizi hil zen 2000n urtean

Minbiziak da, mendebaldeko gizartean, bigarren heriotza kausa. 2000n, hildako hiru gizonezkoetako bat minbizi hil zen, eta bost emakumetako bat. Minbiziaren Aurkako Europako Programaren helburua da hilkortasun tasa %15 jaitea. Programa horren lorpen bat izan da 2000rako aurreikusita zeuden minbizi kasu kopurua jaitsi duela: milioi bat kasu espero ziren, eta 92.500 kasu gutxiago izan ziren.



Martitzenean Elgetako hilerri ostean eta kaleetan ibili ziren soldaduak.

GOIENKARIA

Espainiako Armadako soldaduak Debagoienez ere ikusi ditugu

Urkulun eta Apotzagan, esaterako, lur hartu zuten hainbat helikopterok

AINTZANE IRIZAR

Oraingo astean, lagunarteko solasaldietan ez da falta izan militarren presentziaren gaia. Euskal Herriko hainbat herritan ikusi ahal izan ditugu Espainiako Armadako soldaduak eta helikopteroak; gure ibarrean ere aste osoan ibili dira.

Astelehenean hasi ginen ikusten Espainiako Armadako helikopteroak, ibilgailuak eta soldaduak eurak. Orduetik hona eguneroko kontua izan da hori Euskal Herriko eta Debagoieneko herrietan.

Oraingo hau, baina, ez da horrelako maniobra egiten dituzten lehendabiziko aldia; orain dela pare bat urte ere ibili ziren ibarrean, eta orain dela zortzi urteko *Aretxagazeta* baten irakurri dugu zela ibili ziren militarrek Aretxabaletan.

HELIKOPTEROEK LUR HARTU ZUTEN

Astelehenean bertan Urkuluko urtegiaren ondoan lur hartu zuten bi helikopterok. Inguruan

bizi den herritar batek horrelaxe kontatu digu ikusitakoa: "Lehendabizi, Arkarazon lur hartzen saiatu ziren bi helikoptero; itxura denez, ez zuten lortu, eta Urkulu aldera joan zirela ikusi nuen". Urkulun, baina, lortu zuten euren helburua. Hantxe lur hartu zuten helize bakoitzeko helikoptero batek eta bi helizeko beste batek. Soldaduak helikopteroetatik jaitsi ziren, baina handik gutxira joan ziren.

Martitzenean, berriz, Elgetan izan ziren. Kamioiekin joan ziren herrira, eta hilerri ostean egon ziren; ondoren, herrira joan ziren eta erosketak egiteko aprobetxatu zuten bisita hori. Gai-

Elgetan, Urkulun, Apotzagan, Kanpanzarren eta Aramaion ibili dira soldaduak

nera, iturri batzuen arabera, umeei armak erakusten ibili ziren soldaduak.

Apotzagako auzotarrek ere gertutik bizi izan dute armadako kideen etorrera. Astelehenean, bi helikopterok lur hartu zuten auzo horretako zelai baten, eta hogeit bat soldadu atera ziren helikopteroetatik. Hara eta hona ibili eta gero, alde egin zuten.

EHIZTARIEI ERE JOAN ZITZAIZKIEN

Aramaio aldean usotan zebilen ehiztari talde batek ere izan zuen militarren bisita. Automobilak zeuzkaten tokitik kentzeko esatera joan zitzaizkien, helikopteroek lur hartu behar zutelara eta.

Kanpanzar gainean ere egon dira egunotan soldaduak. Hantxe dagoen jatetxera joan ziren, tabakoa erostera. Bestalde, hainbat herritarren esanetan, Kanpanzar eta Elgeta artean kanpamentua jarri zuten, gauez.

Hortaz, Espainiako Gobernuko iturriek Araban bakarrik ibili direla esan duten arren, gurean ere izan dira.

Bergara eta Aramaioko EAJko batzarrak Egibarren alde

Oñatin, berriz, Imazen alde azaldu da uribatzarra

A.I.

Euzko Alderdi Jeltzalea EBBko presidente berria aukeratzeko prozesuan murgilduta dago. Joseba Egibar eta Josu Jon Imaz dira hautagai nagusiak. Herrietako batzarrak hasi dira dagoeneko lehendabiziko bozketak egiten.

Azaroaren 15era arte egingo dituzte presidente berria aukeratzeko lehendabiziko bozketak herrietako batzarretan. Aramaion, Bergaran eta Oñatin egin dituzte bozketak. Lehenengo bietan Joseba Egibarren alde azaldu dira uribatzarrek; Oñatin, berriz, Josu Jon Imazen alde azaldu ziren herri batzarreko kideak. Aretxabaletan eta Eskoriatzan hilerri 10ean egingo dute batzarra. Arrasaten, Elgetan eta Antzuolan, lehendabiziko bozketa hori egi-

teko asmoa duten arren, ez dute oraindik datarik zehaztu.

GIPUZKOAN, EGIBAR GARAILE

Hego Euskal Herriko herri askotan egin dituzte dagoeneko lehendabiziko bozketak, eta orain arteko emaitzen arabera, Bizkaian Josu Jon Imaz izan da nagusi. Araban, Gipuzkoan eta Nafarroan, berriz, Joseba Egibarren alde azaldu dira uribatzar gehienak. Iñigo Urkulluk eta Xabier Arzallusek ere hainbat uribatzarren sostengua jaso dute.

Bozketa horiek bigarren bozketetako hautagaiak zehazteko balio izango dute. Hiru uribatzarren sostengua behar da bigarren itzulian hautagai izateko. Gainera, hautagaiak erabaki behar du hautagai izan nahi duen edo ez. Arzallusek eta Imazek, hortaz, bigarren bozketetarako hartu beharko dute erabaki hori.



Lehendakaria Brasilen, Ederlanen lantegian

Hego Amerikara egiten diharduen bidaian, Brasilen egon da Juan Jose Ibarretxe lehendakaria oraingo astean. Bidaia horretan, Fagor Ederlanek Brasilen duen lantegira bisita egin zuen astelehenean, Josu Jon Imaz Industriako sailburuarekin batera. Minas Gerais estatuan, Extremean, hain zuzen ere, dauka lantegi hori Ederlanek; 325 langilek dihardu hantxe lanean. Automozioeko piezak egiten ditu Fagor Ederlanek, eta Brasilgo lantegian enpresaren ekoizpen osoaren %5 ekoizten dute. /A.I.

ANTZERKI MUGIMENDUA

Abiadura, intentsitatea, erritmoak, altuerak, gorputz espresioa, gorputz testura... Orokorrean, norberaren mugimenduaren kontzientzia. Guztia jolas giroan.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazte Salla ■

Irakasleak: Olatz Zugasti eta Jon Zubia
Egutegia: azaroaren 17tik urtarrilaren 26ra.
Azaroaren 17an eta 24an, abenduaren 1ean eta 15ean eta urtarrilaren 12an, 19an eta 26an.
Eguna: astelehena
Ordua: 18:30 - 20:30
Lekua: Gazteluondoko aretoan
Matrikula: 30 euro / 25 euro ikasle eta langabeentzat

Izenematea: GAZTE BULEGOAN 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

Ikasle Abertzaleek 15. urtemuga ospatuko dute Alegian hilaren 15ean

Martitzenean, horren berri emateko prentsaurrekoa egin zuten Bergaran

ENEKO AZKARATE

Ikasle Abertzaleak taldeak 15 urte beteko ditu. Hori dela-eta, hainbat ekimen antolatuta dituzte azaroaren 15erako, ikasleen Nazioarteko Egunaren atarian. Alegian ospatuko dute Ikasle Abertzaleak taldekoek 15. urteurrena.

Ospakizunen berri eta Ikasle Abertzaleak (IA) taldeak 15 urteotan egindako lanaren berri emateko prentsaurrekoa egin zuten Bergaran, martitzenean, ibarreko IAkoek.

Hasieran erakunde txikia zena gaur egun ikasleen artean erreferente nagusi bilakatu dela adierazi zuten. Era berean, IAK Iruñean egin zuen lehenengo Batzar Nazionalaren aurretik, Bergaran Batzar Eratzailea egin zela azpimarratu zuten. Horren haritik, une hartan IAren sorreran lanean jardun zuten eta gaur egun espetxean dauden Mikel Zubimendi eta Paulo Elkoro bergararrak ekarri zituzten gogora.

IAren helburu nagusia Euskal Eskola Nazionala eraikitzea dela esan zuten. Hori lortu arte



Ibarreko IAko arduradunek hartu zuten parte martitzeneko prentsaurrekoan.

lanean jarraituko dutela esan zuten, ikasleen mugimendua eratzeko, autoritarismoaren aurka egiteko, hezkuntza sistema propioa eraikitzeke eta euskaraz ikasteko eskubidearen alde.

AZAROAK 15, IKASLEEN EGUNA

Egitarau zabala antolatu dute: eztabaida gunek, bazkaria, bertso saioa, kale animazioa, manifestazioa eta kontzertua izango

dira Alegian. Besteak beste, honako taldeak egongo dira: O' Funkillo, Banda Bassoti, Hamlet, Habeas Corpus (Ikasle Eguneko kantua egin dute), Su Ta Gar eta Berri Txarrak (azken diskoa aurkezten). Kontzerturako sarrerak salgai jarri dituzte (12 euro) Bergarako Arrano eta Arrasateko Irati tabernetan. Autobusak ere antolatuko dituzte eta izena eman daiteke taberna horietan.

Eroskik auzitara eraman du Araceli Martin, Eroski ETArekin lotzeagatik

Talaverako Enpresaburuen Federazioko idazkaria da Martin

AINZANE IRIZAR

Araceli Martinek, Talaverako Enpresariaren Federazioko idazkaria, Eroskik ETArekin zerikusia duela salatu berri du. Hori dela eta, Eroskik auzitara eraman du.

Eroskik hipermerkatua jarri nahi du Talaveran (Toledo). Talaverako Enpresariaren Federazioak gogor egin du azkeneko sei urteotan Eroskiren asmo horren aurka. Orain dela gutxi, federazioko kide-

en artean mezu elektronikoko bat zabaldu zuen Araceli Martin FEPEMTAko idazkaria; mezu horretan esaten zuen Eroskik eta bertako langileek ETA erakundearekin zerikusia zutela. Hori ikusita, Eroski taldeak Martin auzitara eramatea erabaki du, eta halaxe egin du.

HELBURUA, OHOREA GORDETZEA

Fernando Gago Eroski taldearen abokatuak esandakoaren arabera, kooperatibak ez du dirurik eskatuko auzi horretan; euren

helburua da salaketa horien aurrean enpresaren eta enpresako langileen ohorea gordetzea.

MCC-KO ENPRESEK, SALAKETA UGARI

Eroski ez da izan azkeneko urteotan era horretako salaketak jasan dituen lehen enpresa euskalduna. MCC taldeko Fagor enpresak eta Euskadiko Kutxak, besteak beste, kritika ugari jaso dituzte.

Orain arte, baina, isilik gertatzea izan da enpresa horietako askoren aukera.

Arrasateko Eskola Politeknikoari Zilarrezko Q ziurtagiria eman diote

AINZANE IRIZAR

Euskal-it-ek, Kalitaterako Euskal Fundazioak, Zilarrezko Q ziurtagiria eman dio Mondragon Unibertsitateko Eskola Politeknikoari. Datorren hilean, abenduan, jasoko du ziurtagiri hori Eskola Politeknikoak, Eusko Jaurlaritzako arduradunen eskutik.

Zilarrezko Q ziurtagiriaren, eskolaren kalitatea eta kudeaketa ona saritu nahi izan ditu Euskal-it erakundeak.

Europa mailako EFQM erakundeak ezartzen duen sisteman arabera neurtzen du Euskal-it-ek enpresa eta erakundeen kalitatearen eta kudeaketa sistemen maila.

KALITATEAREN BIDEAN PROZESU LUZEA

Orain dela zortzi bat urte, 1995ean, hain zuzen ere, kalitatearen ISO ziurtagiria jaso zuen Arrasateko Eskola Politeknikoak; estatu mailan sari hori jaso zuen lehendabiziko unibertsitatea izan zen, gainera; Europa mailan ere lehengotako bat izan zen sari hori jasotzen.

DEBAGOIENEAN LABUR

Paulo Elkoro estraditatu egin dute, eta Soto del Real espetxean dago eguaztenetik

Eguazten arratsaldean iritsi zen Paulo Elkoro Madrilgo Barajas aireportura, Alemaniatik. Auzitegi Nazionaletik pasatu ondoren, Soto del Realgo espetxera eraman zuten. Urtarrilean atxilotu zuten Elkoro Alemanian eta ordutik hona preso egon da hantxe. Abuztuan, estradizioaren aldeko agindua eman zuen Nurenbergeko epaitegiak; Auzitegi Konstituzionalak berretsi egin du erabaki hori.

Fagor eta Ikerlan enpresek Europako TEAHA proiektuan hartuko dute parte

Fagor eta Ederlan enpresak izango dira euskal ordezkariak Europako TEAHA proiektuan. Etxeetan egoten diren aparailuak euren artean komunikatu ahal izateko sarea garatzea da proiektuaren helburua. Telefonikak bultzatu du proiektua, eta Fagor eta Ikerlanekin batera Philips eta Siemens daude, besteak beste.

'La pelota vasca' filma oraingo asteburuan emango dute Arrasateko Amaia antzokian

Julio Medemen *La pelota vasca* filma ikusteko aukera izango dugu oraingo asteburuan Arrasateko Amaia antzokian. Aurreko astean iragarri genizuen botako zutela filma, baina huts egin genuen informazio horretan. Oraingo asteburuan izango da: bihar, zapatua, 19:00etan eta 22:00etan; domekan eta astelehenean, berriz, emaldi bakarra izango da, 19:00etan.

Adi!

ARRASATEKO
BATZOKIA
Zabalik!

- Eguneko menuak
Baita zapatuetan ere!
- Karta
- Plater konbinatuak

Iturriotz 41
Tel.: 943 79 85 72

Carrión música, s.a.

- Gitarrak, baxuak, anplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.

Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

EUSKALTEGIKO IRAKASLEAK

Arrasateko Udalak euskaltegirako irakasleen lan-poltsa hauek sortu nahi ditu:

- Aldi baterako kontratazioak egiteko lan-poltsa
- Praktika aldiko kontratazioak egiteko lan-poltsa

Izena emateko epea: azaroaren 8tik 14ra arte.

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke edo web orrian ikusi: (www.arrasate-mondragon.org)



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal saila ■

ARETXARGI

MODESTO ROMEO
aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABAleta - GIPUZKOA

Tel: 943 53 26 28 / 645 73 40 32

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK

BERGARA

Erretiratuen egoitzaren historia eta bilakaera liburuan jaso dute

Evolución del hogar del jubilado en el contexto social de Bergara. 1972-2002 izenburua du liburuak, eta Xabier Ibartzabal mediku donostiarrak idatzi du.

Erretiratuen Elkarteak izan duen bilakaera jaso du liburuan: 1972an Aitonak izenarekin sortu zutenetik gaur egun San Josepe izenarekin elkarteak egiten duen lanera arte. Testuarekin batera, orduko eta gaur egungo hainbat argazki daude.

Liburua gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute, 19:30ean, osoko bilkuren aretoan. /M.B.



ARTXIBOA

LEINTZ GATZAGA

Ekitaldiz gainezka datoz San Milixanak Leintz Gatzagara

San Milixan ardixixe jan eta aketeixan. Horrela dio esaera zaharrak. Azkeneko urteotan azaroko bigarren domekan ospatzen dute gatzagarrek San Milixan azoka. Aurten XI. Langintzen Feria egingo dute. 17 artisauk egun osoan erakutsiko dituzte euren lanak: adar tailatzea, uztarriak, makilak eta maketak, beira puztu modelatua, artarorizko alfonbrak eta gaztagilea ikusi ahal izango ditugu, besteak beste. Baina azokaz gain, beste ekitaldi batzuk ere antolatu dituzte astebururako: gaur, egubakoitza, Sorginak emakume taldeak antolatuta hitzaldia egingo du Alberto Altubek sendabelarren gainean eta domekan erakusketa egingo dute Garro jauregian. Zapatuan, berriz, 19:30ean, frontoian, *Gatzaga 2003* diaporama estreinatuko dute: Gatzagaren eta gatzagarren gaineko bideoa. /A.G.

ANTZUOLA

Beheko auzoko herrirako sarrera hobetzeko dirurik ez dauka Aldundiak

Herrirako beheko sarrera aldatzeko proiektua egin da dago, baina lanak oraindik ezin dituztela egin esan du Diputazioak; azaldu dutenez, ez dute horretarako nahiko diru.

Aurreko astean jaso zuen Udalak Diputazioaren erantzun hori. Urte batzuk itxaron beharko ei dira aldaketa hori egiteko.

Udaleko arduradunek behar-beharrezkotzat jotzen dute beheko sarrera horretan aldaketak egitea, eta, adierazi dutenez, presioa egingo dute lanak lehenbailehen egin ditzaten. /E.I.

ELGETA

Udalaren webgunek 27.000 bisitatik gora jaso ditu urtebetean

Elgetako Udalaren webgune berritua 2002ko azaroaren 10ean aurkeztu zuten, orain dela urtebete, beraz. Denbora honetan, erabil-tzaileek erantzun ona eman dute. Hau da, bisiten eta orri ikusien kopuruek gora egin dute pixkanaka, batez ere azken hilabeteetan. Guztira, 27.000 bisita jaso ditu guneak urtebetean. www.elgeta.org helbidetan albisteak aurki daitezke, besteak beste, aurten 200 albistetik gora sartu dituzte-eta kudeaketaz arduratzen diren Goienako langileek. /I.A.

OÑATI

Kultura ekitaldi mordoa izango ditugu herrian hilabete osoan

Rock kontzertuak, erakusketak eta hitzaldiak izango ditugu herrian azaroan barrena.

Bihar, esaterako, kontzertua izango dugu gaztelekuan. Akauzazte eta Tanta taldeak izango ditugu, 22:30ean. Euskal Herriko rock berriaren ordezkariak ditugu talde horiek. Akauzazte taldea Azkoititik dator kigu; maketa bat eta disko bat dituzte kalean, eta talde abangoardista, interresgarria eta berritzailea dela diote adituek. Tanta taldea, berriz, Tolosatik dator kigu. Urtarrilean kaleratu zuten lehendabiziko lana.

Eta azaroaren 15ean beste kontzertu bat izango dugu gaztelekuan. Hain zuzen ere, Stacey Earle eta Mark Stuart musikari estatubatuarrek izango ditugu egun horretan. 22:30ean hasiko da kontzertu hori ere. *Never gonna let you azkeneko diskoa*, hain zuzen ere, aurkeztera etorriko zaizkigu Oñatira.

ERAKUSKETAK ETA HITZALDIA

Batetik, Amnesty International erakundearen erakusketa dugu ikusgai kultura etxean, hilaren 14ra arte; *Giza eskubideak, emakumezkoen eskubideak* izenekoa, hain zuzen. Aste-gunetan 18:30etik 20:30era eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era egongo da zabalik. Hilaren 12an, berriz, erakunde horretako kide Arantza Lekuonak hitzaldia egingo du, 19:00etan, kultura etxean. Azkenik, hilaren 17tik 30era Luis Laskurain pintore bergararraren erakusketa egongo da. /AINTZANE IRIZAR

Zertzelada

Bihar bertan, zapatua, Akauzazte eta Tanta rock talde euskaldunen kontzertua izango dugu gaztelekuan, 22:30ean

ARRASATE

Nekazaritzaren gaineko ikastaroak egiteko aukera egongo da

Fraisoroko ereduak aplikatu eta nekazaritzaren gaineko ikastaroak emateko aukera aztertzen dabilta Arrasateko Udalean.

Kontua da ibarreko nekazariak orain arte Zizurkilera, Maeztura edo Deriora joan behar izaten zutela halako ikastaroetara. Hala, Udalari proposatu diote haraino joan beha-

rean Arrasaten antolatzea ikastaro horiek. Mota horretako hezkuntza kudeatzen duen Mendikoi elkartearekin jarri da harremanetan Udala eta Mendikoiko ondo hartu du eskaera. Orain, eman beharreko ikastaroak, ikasle taldea eta ikasteko lekua zehaztu beharra dago. Izena emateko epea zabalik dago. /U.M.



ARRASATE PRESS

Seguru asko Udalako Ingurugiro Eskolan emango dituzte ikastarook.

ARETXABAleta

Ekitaldi ugari Muru-Alde elkartearen 50. urteurrenean

Aretxabaletan dagoen Muru-Alde elkarte gastronomikoak 50 urte beteko ditu aurten. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Ospakizun garrantzitsuena hilaren 22an, zapatua, egingo dute. Baina girotzen hasteko hainbat hitzaldi izango dituzte datozen egunotan: eguaztenean, hilak 12, elikadura osasuntsuaren inguruan egingo dute berba Roteta sukaldariak eta Iñaki Ferrando medikuak; eguenean, osteran, Mikel Garaizabal enologoak ardo dastatzea izango du hizpide. Muru-Alden izango dira biak, 19:00etan. /M.A.

ESKORIATZA

100 urtean bi abade egon direlako ospakizuna izango dute Bolibar auzoan

Ospakizun berezia izango dute domekan, hilak 9, Eskoriatzako Bolibar auzoan. 1903tik hona, hau da, azken 100 urteotan, bi abade bakarrik izan dituzte auzoan: On Migel Alberdi arrasatearra 1903tik 1945era arte eta On Kruz Abarrategi plaentziarra 1945etik gaur arte. 100 urtean abade bi izatea ez denez batera ohikoa, ospatu gura izan dute Bolibarko auzotarrek. Hori dela eta, meza izango dute domekan 12:00etan, eta horren ostean luntxa egongo da bertara hurreratzen diren guztiendako. /M.A.

ARAMAIO

San Martin dela eta ospakizunak egingo dituzte herriko bi taldek

Aramaioko patrioaren eguna aprobetxatu, eta astebururako ekitaldiak antolatu dituzte herriko bi taldek. Batetik, Txirritola Euskara Elkartearen eskutik Partxis Lehiaketa jokatuko dute. Bihar izango da, 16:30ean, osoko bilkuren aretoan. Gura duenak parte har dezake.

Bestetik, Kalejiran Trikitixa Taldeak Trikitilari Eguna ospatuko du. Besteak beste, 18:00etan kalejira egingo dute, eta era berean buzkantzak eta ardo beltza emango diete plazara doazenei. /U.M.

Mario Sanz Duintasunez Hiltzeko Eskubidearen Aldeko Elkarteko kidea da, eta besteak beste Bizi Testamentuen aldarrikapena egin izan du. Asteon jakin dugu Eusko Jaurlaritzak datorren hilabetetik aurrera abian jarriko duela Bizi Testamentuen erregistroa, eta berri hori jakinda, Sanzengana jo dugu bere iritzia jasotzeko asmoz.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bizi Testamentuen erregistroa urtea amaitu baino lehen indarrean izango dela esan du Eusko Jaurlaritzak. Nola hartu duzu berria?

Prentsaren bidez jakin dut erregistro horren berri eta egia esan albistea noiz jasoko zain nengoen. Izan ere, lan asko egin dugu erregistro hau sortu zedin eta azkenean lortu dugu. Ez da guztiz guk nahi genuen bezalakoa izan, gauza sinpleagoa izatea nahiago genuen, baina egin dute eta hainbestean pozik egoteko moduan gaudu. Gure eskaria udalean horretaz arduratuko den norbait egotea da. Hau da, Bizi Testamentua egin nahi dutenek harengana joko lukete eta hark egingo luke gainerako tramitazio osoa. Eusko Jaurlaritzak orain dela bi urte onartu zuen Bizi Testamentuen Legea. Funtzionario batek, paperak betetzeaz gain, beste bi aukera ere ematen ditu: testamentua hiru lekukoren aurrean sinatzea edo notarioarengana jotzea. Baina azken bide horrek ordaintzea dakar eta nire ustez hori lekuz kanpo legoke. Nik orain dela bi urte egin nuen Bizi Testamentua eta oraingoetatik badu ezberdintasunik; orain, guztiek paper bera bete beharko dutela uste dut. Gainera, lehendik egin dugunoi eskatu digute gure Bizi Testamentuak zerrenda orokorrean erregistratzea. Izan ere, erregistroa ez dira legezkoak.

Zer dela eta erabaki zenuen Bizi Testamentua egitea?


Kasu asko ezagutzen ditut jendea urte luzetan gaixorik dagoena eta familia gaixo horren mendean duena, sufritzen. Nik ez dut horrelakorik nahi nire senideentzat eta arrazoi horregatik erabaki nuen dokumentu hau egitea.

Jende askok ez du jakin ere egingo zer den Bizi Testamentua. Azalduko zeniguke, labur, zer den?

Adinez nagusia izanda eta buruz argi egonda idatzitako dokumentua da. Bertan bakoitzak azalduko du sendagileek bizitzan aurrera egiteko modurik ez duela esaten dioten unetik heriotzara arte zein tratamendu edo zaintza modu jaso nahi dituen, baita non jaso gura lukeen ere. Azken baten, heriotza duina izateko nahia adierazten du idatzi horrek.

Behin dokumentua egin ostean zein bide jarraitu behar da?

Orain dela gutxi ebakuntza bat egin didate eta erietxean Duintasunez Hiltzeko Eskubidearen Aldeko Elkarteko kide naizela dioten txartela erakutsi nuen, baita ez aurrera ez atzera geratuz gero nirekin zer egitea nahiko nukeen azaldu ere. Berehala onartu zituzten nire eskariak. Heriotzarako bidean edo osasunez oso gaizki egonez gero, minik gabe lasai hiltzen lagatzea da kontua. Beraz, sendagi-



MONIKA BELAUSTEGI

Mario Sanz

DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEAREN ALDEKO ELKARTEKO KIDEA

“Gaixorik egon arren heriotza duina izateko nahia adierazten du Bizi Testamentuak”

SENDAGILEEN JARRERA

“Badira zenbait sendagile gai honen aurrean nahiko jarrera atzerakoia azaltzen dutenak, baita erlijioa aitzakiatzat jarrita gure eskubideak ukatzen dizkigutenak ere”

EUTANASIA

“Eutanasia ez dugu onartzen egungo legeen aurka doalako, baina gaixo dagoenaren bizitza zentzurik gabe luzatzea ere ez dugu bidezkoztat jotzen”

leei testamentu mota hori egin duela esan behar dio gaixoak, haiek jakinaren gainean egon daitezten.

Zein abantaila ditu modu honetako testamentua egiteak?

Nik neuk, esaterako, emaztea eta bi seme-alaba ditut, asko maite ditudanak, gainera. Beraz, ez nuke nahi hainbeste maite ditudanek hilabeteak ni zaintzen sufritzen ematea. Honela, bada, gertukoei gaizki pasatze hori saihestea nahiko abantaila

la dela uste dut. Izan ere, nik nahiago dut bizitzan alaia izanez gero hola gogoratzea eta ez gaixo egon naizelako karga moduan.

Desabantailarik badu?

Nik ez diot inongo desabantailarik ikusten duintasunez hiltzeari, baina bidean aurkitu daiteke oztoporik. Badira zenbait sendagile gai honen aurrean nahiko jarrera atzerakoia azaltzen dutenak. Beraz, saiatu behar da jarrera modernoagoa duten medikuak aurkitzen eta ez erlijioa aitz-

kiatzen hartuta ebanjelioak hau eta beste dioela esaten dutenak. Horrelakoak oraindik badira eta ez digute lagatzen gure eskubideak betearazten.

Bizi Testamentuak duintasunez hiltzea ahalbidetzen du baina ez du eutanasia onartzen, ezta?

Ez, eutanasia ez dugu onartzen egungo legeen aurka joatea izango litzatekeelako. Azken baten, gure nahia ez da heriotza indarrez eragitea. Baina era berean, Bizi Testamentua egitean eskatzen dugu bizirik irauteko neurri medikoak ez erabiltzea. Hau da, gaixo dagoenaren bizitza inolako zentzurik gabe luza dezaketene bideak: bihotz-biriketako bizkortzea, dialisia, arnasteko aparatua bati lotzea, elikadura artifizialea...

Zuk zeuk zein tratamendu jaso nahi zenuke zure etorkizuna erabakitzeko gauza ez zarela jakinez gero?

Bat bakarra, sufrimendua saihestea. horretarako medikuntzak baditu zenbait bide. Gorputzak irauten duen bitartean, irauteko inolako biderik ipini gabe eta gaixoak sufritu beharrik izan gabe mantentzen badakite sendagileek.

Bizi Testamentuak zabalik lagatzen du hilez gero bere organoak emateko modua, ezta?

Bai, hala da, gorputzeko edozein atal eman daiteke. Baina kasu gehienetan hau egiten dugunok adinean gora goazenak izan ohi gara eta gure organoek ez dakit besteendako balio duten. Hala ere, nire testamentuan esan nuen beste norbaiti emateko moduko organorik egon ezean, nire gorputza ikerketarako erabil dezatela eta ondoren errausteko. Baina erabaki hori norberak hartu beharrekoa da.

Erregistro honen berri jakinda, Bizi Testamentua jende askok egingo duela uste duzu?

Ez dut uste asko izango direnik. Jendea oso uzkur azaltzen da horrelako gaien aurrean. Bada 80 urtetik gorako jendea diena hil artean bizitzen lagatzeko edo bizirik mantentzeko, dagoen egoeran dagoela. Adinez nagusia izanez gero edozeinek dauka Bizi Testamentua egiteko aukera. Nire ustez, pentsaeraz zabalak direnak eta asko irakurri dutenak ohartuko dira orain arte jarraitu den bidea ez dela batera egokia eta horiek animatu edo ausartuko dira Bizi Testamentua egitera.


Orain dela urtebete onartu zuen Eusko Jaurlaritzak Bizi Testamentua, orain erregistroa ipiniko du abian. Zerbait gehiago dago egiteko?

Oraindik berria eman besterik ez dute egin, eta behin abian jarrita pixkanaka gauzak zorrotzen joango diren ustea dut. Batez ere oztopoei aurre egiten saiatu behar gure horren alde gaudenok. Izan ere, beti egon daiteke familiaren batean norbait horrekin ados ez dagoena eta gaixoak berak onartu arren sekulako iskanbila sor dezakeena erabakiak hartzeko unean. Senideak ez ezik mediko atzerakoiak ere badira, gure eskariak onartzen ez dituztenak. Nik neuk, esaterako, sendagilea aldatu behar izan nuen niri zegokidanak ez zituelako nik eskatutakoak onartzen.

Duintasunez Hiltzeko Eskubidearen Aldeko Elkarteko kide zara. Zer aldarrikatzen duzue?

Izenak berak garbi erakusten du zein den gure elkartearen aldarrikapen nagusia: pertsona bezala hiltzen utz gaitzaten baino ez dugu eskatzen. Senideen sufrimendua eragozteaz gain, Segurtasun Sozialean gastatuko genukeen dirua aurrezteko ahalbidetzen du, baldin eta gure nahiak zorrotz betetzen badira. Elkarteko kideoi ezinbestekoa iruditzen zaigu prozesu klinikoaren muina gaixoa bera izatea. Gaixotasun atzerazinen aurrean norberak aukeratuko du tratamendua segitu edo ez.

Zabalik

ASIER
ALTUNA

Del Olmo autoak

Euskara sustatu ezazu 'auto' baten truke!
Hauxe da auto enpresa multinazional batek egin berri duen azken eskaintza. Enpresako saltzaileetako bat aski ezaguna da exekutibo-gazte-agresiboen munduan: Garzón jauna. Bere pausoak jarraituz, berriz, '2003ko enpresa gizona' izendatzeko posibilitate asko dituen eta dagoeneko aurten mila bat auto kolokatu dituen Luis del Olmo.

Ez al duzue nahi ba autoak ematen dizun askatasuna, pertsonalitatea eta independentzia? To autoa! Zuek ez al zarete ba hain diferenteak? Aukeratu nahi duzun kolorekoa. Autoak saltzen dituzte, merkeak, urte askoan ordaintzeko erraztasunekin, edozeini, ez duzu zertan aurretik euren bezero izan; lehen ere esan dizuet, "en expansión" omen daude.

Zertarako behar dut nik beste auto bat? Igual asteburuetarako berria... Lanegunetan, berriz, zaharrarekin jarraituko dut... Hala ere... Benetan behar al dut bigarren auto bat? Aspaldi utzi genion garraio publiko erabiltzeari, ondoren "dedo" egitea ere baztertu genuen. Orain, berriz, bakoitza nor bere autoan goaz lanera, bakkarik! Eta oraindik hauek biak, bigarren "autoa" eskaintzen dizute.

Garzónnek eta Del Olmok daukaten saltzeko gogo itsua ikusirik, agian laster autoen ordeztasunak eskaintzen hasiko dira. Agian orduantxe hasiko gara konturatzen, askoz ekologikoago, praktikoago eta benetan beharrezkoagoa dela autoa konpartitzea.

Has gaitezen lankidearekin autoa konpartitzen, bestela "autoen" atzetik asteburuko bisita egitera doazen autobusen joan-etorria bukaezina izango da.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

Kexua, Arrasateko
Aldai hilerria dela-eta

Haserrea eta samina azaldu gura dut joan den domekan, Arimen Eguna izanda, ezin izan genituelako Arrasateko Aldai hilerrian dauden geure senitartekoak bisitatu.

Denok dakigun moduan, kanposantu horren egoera eskasa dela-eta Arrasateko Udalak erabaki zuen astebetetz zabaltzea bakkarik, urriaren 27tik 31ra, 16:00etatik 18:00etara; eta azaroaren 1ean, 09:00etatik 18:00etara. Ordutegi horretan ezin nintzenen joan, egubakoitzean (Domu Santu bezperan) Arrasateko udaletxera deitu nuen, kanposantua goizez zabal zezaten eskatzeko; izan ere, nire moduan txandaka lanean dabilzan askorendako ezinezkoa zen arratsalde joatea.

Udaletxean, Moises izeneko batengatik galdetzeko esan zidaten, baina hura ez zegoen; udaltzain-buruari deitu nion gero eta hark esan zidan arazo hori ez zela bere kompetentzia, Etxeberriarteun jaunarengatik galdetzeko; baina hura ere ez zegoen.

Telefonoz denbora dezente egon eta gero eta ikusita udaletxean pilota batak bestearekin pasatzen ziola, bere horretan utzi nuen guztia. Hala, azaroaren 1ean kanposantura joan nintzen, baina oso eguraldi eskasa zegoela-eta, denbora laburra eman nuen han, pentsatzen hurrengo egunean ere joan ahal izango nintzela. Hala egin nuen, baina atea itxita zegoen. Beste batzuk ere bazeuden han, sartu nahian. Hori ikusita eta ustez astean izandako ordutegi berarekin zabalduko zutela hilerria, arratsaldean bueltatu nintzen, 17:00ak aldera; atea itxita zegoen.

Azkeneko aldiz nire senitartekoaren hilerria bisitatu ezin nuela ikusita (laster gorpuak aterako dituzte Aldaitik), oso haserre Udaltzaingora jo nuen, hilerria zergatik zabaldu ez zuten galdetzeraz. Han zegoen esan zidan hori ez zela bere kompetentzia, baina nire egonezina ikusita, besteak beste, nagusiari deitu zion atea zabaldu ahal izateko. Baina ezezkia eman zioten.

Gauza zera da: segurtasunik eza dela-eta, arriskutsua zen gunea hesiarekin inguratuta zegoen; hortaz, ezin zuten kanposantua beste egun batez zabaldu? Justu Arimen Egunean hondoratu behar zen, ala?

Pertsonen sentimenduekin jolas egin dute eta hori oso serioa da. Espero dut aurrerantzean erabakiak hartzeko orduan hobeto pentsatzea; eta esan gura dut min handia egin didatela nik dudaren eskubide bat ukatzearen: azkeneko aldiz senitartekoak agurtzea.

PLACI GARCIA
Arrasate

Bakean dagoena,
bakean utzi

Pasa berri dugu Domu Santu eguna, eta ohitura denez jende asko hurbiltzen da Aretxabaletako hilerria, Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, bakoitzak

bere familiako, lagun, edo eta adiskide izan zirenei bisita bat egitera eta aldi berean, posible bada, leku hotz hau lore ederrez apaintzera.

Gure familiakook ere berdin egin genuen, han baitaukagu gure Ion, eta lore polit eder batzuk eraman genizkion, zoritxarrez gaur egun egin diezaioketun opari bakarra baita.

Baina gertatutakoak ez dira hemen bukatzen, zeren eta larunbat eta igande eguerdira arte gauzak behar bezala joan ondoren, astelehenean, loreak ipini eta bi egun geroago, ilusio handiz eramanikoa txikituta agertu zen. Haizea izango ote zen? Ez, ez da hainbestearainoko haizerik izan. Lapurren bati esku artetik erori ote zitzaion bere lana bukatu baino lehen? Egia esan, hildakoei lapurtzea ez da gauza zaila.

Ekintza honen egileari:

Nola liteke, teorikoki maite zenuen norbaiti, lapurturiko zerbait eramatea?. Lotsatu egiten al zara hilerria lore gabe ikustea? Zure ezagunek zer esango dutenaren beldur zara?

Ez dakit nori eraman behar zenizkion Ionen lorak, baina seguru nago jaso behar zituenak ez zituela atsegingo, zeukaten jatorria jakinik.

Zuk zeuk inork baino hobeto dakizu egindakoak ez daukala inongo zentzurik eta baliorik. Nor engainatu nahi duzu? Zu zeu, zeure burua, hori da aurkitzen dudaren erantzun bakarra.

Ez dakit zure helburua lortzerik izan zenuen, baina aitak eta amak zeukaten ilusioa bertan behera botatzea lortu duzula garbi izan ezazu. Beraz, errespetu gabeko horrek, pentsa ezazu pixka bat egindakoaz eta galde izeaiozu zeure buruari zu nola sentituko zinen beste edonork zuk egindakoa egin izan balizu.


Datorren urtean jarrera zintzoagoa izan ezazu, guztion hoberako izango baita eta lotsa zaitez benetan lotsagarri diren gauzez.

Bakean dagoena, bakean utzi.

AITOR ANTIXIA ALBERDI
Aretxabaleta

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martín, Imanol Elortza

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

**Beste
inon baino
horma-armairu
eta ate
gehiago**



LANLEKURAKO



GAZTEEN GELARAKO



EGONGELARAKO



LOGELARAKO


Kruz
Gallastegi 9
BERGARA
943 76 38 10

GELAN



CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura



Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia.....	Antonio Estomba
Menopausia	Fernando Cristóbal
Endoskopia ginekologikoa	Alfredo Otalora
Laguntza bidezko ugalketa.....	Jose M. Gómez
	Ainhoa Larrea
Titietako gaixotasunak	Domingo Murgiondo
Obstetrizia.....	Miguel Gabarain
Psikosexualitatea	Maria José Ruiz
Nerabezaroko ginekologia	Fatima Azkue
Hezur dentsitometria	J. Rodríguez

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18


Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

Behobiatik Donostiara arineketan

Debagoieneko 400 korrikalaritik gora jardungo dute lasterka Fortuna Elkarteak antolatutako herri proban

IRATI AGIRREAZALDEGI

Domekan, azaroaren 9an, izango da Behobia-Donostia herri lasterketa. 11.200 korrikalaritik gora izango dira. Iazko parte-hartze marka hautsiko da, hortaz. Horietatik asko debagoiendarrak. Laurehunetik gora antxintxikolari joango dira, gutxi gorabehera.

Inguruko herri lasterketa eza-gunena da Donostiako Fortuna Kirol Elkarteak antolatzen duen Behobia-Donostia proba. 39. edizioa du aurtengoa, aro berriko hogeita bosgarrena. Hain zuzen ere, antxintxika egitea gustuko duen edozeinek har dezake parte.

Aurreko urteetako marka hobetzera joaten dira batzuk, lasterketa amaitzea beste helbururik ez duenik ere bada, baita lagunekin apusturen bat eginda edo besterik gabe ondo pasatzeko asmoz joaten direnak ere. Guztiek 20 kilometroko ibilbidea egin beharko dute.

Behobiako mugatik abiatu eta Gaintxurizketako gaina, Lezo eta Pasaiako portua igarota Donostiako Bulebarrean amaituko da lasterketa.

Zenbaki horia edo berdea duten korrikalariak, hau da, iaz marka zehatz bat hobetu zutenak, goizeko 11:00etan aterako dira. 40 segundo geroago zenbaki gorri-dunak eta gainerakoek, berriz, 11:02:30ean izango dute irteera ordua.



ARGAZKI PRESS

Iaz 10.800 partaidetik gora izan ziren Behobia-Donostia proban eta 405 debagoiendarrek amaitu zuten ibilbidea.

IBARRETIK, 400 BAINO GEHIAGO

Izena emateko epea amaituta, iazko partaide kopurua gaintzitea zen antolatzaileen asmoa eta horretarako 11.200 korrikalaritan ipini zuten muga. Hala ere, azken unean jende gehiagori eman diote aukera. Hainbat kiroldegi eta kirol dendatan edo Internet bidez egin da izenematea.

Guztira 11.200 korrikalari baino gehiagok eman dute izena aurtan 20 kilometroko ibilbidea egiteko

Iaz 405 debagoiendarrek amaitu zuten lasterketa eta aurtan ere ibarreko parte-hartzaile kopurua antzerakoa izango dela espero dute.

Ibarreko kirol dendetara 350 lagunetik gora joan dira zenbaki bila, baina beste batzuek Internetera eta bailaratik kanpoko beste toki batzuetara jo dutela

jakinda gutxi gorabehera 400 antxintxikalaritik gora izango dira Behobiako irteeran.

URDANPILLETA ETA ARANBURU

Joan zen urtean lehenengo debagoiendarra Oñatiko Asier Urdanpilleta izan zen. Ibarreko lehena izateaz gain, helmugara heltzen lehenengo gipuzkoarra ere bera izan zen.

Gizonezkoetan lehena Urdanpilleta izan zen, eta emakumeetan Iratxe Aranburu zarauztarra iritsi zen lehenengo tokian. Bergarako Udaleko kirol teknikaria da Iratxe.

Herri lasterketetan ez ezik maila altuagoko probetan ere hartzen du parte Aranburuk; beraz, domekan iazko marka hobetzeko asmoz joango da. "Denboraldiko beste proben artean geratzen den lasterketa izanik, eta iaz jendearen aldetik animu asko jaso nuela ikusita aurtan ere parte hartuko dut. Helburua, iaz egindakoa hobetzea izango da. Horretarako taktikoki jokatu beharko dut. Izan ere, aurkariak Espainiako Selektzioarekin parte hartzen duten korrikalariak dira. Gainera, Behobia-Donostia festa bat da eta jai horretako partaide izan nahi dut".

Goi mailako korrikalariak zein zaleak, emakume nahiz gizonezkoak, guztiek antxintxika jardungo dute korrika eta festa uztartzen dituen proban. Debagoiendarrak animatzeko aukera ere izango dute parte hartzera animatzen ez direnek.

Txinatar jatetxea
DRAGON ORIENTAL



EGUNEKO MENUA

Lehenengo platera
Udaberri-erroiloa entsalada txinatarrekin.
Vietnamgo erroilo berezia
Eta abar

Bigarren platera
Ku-bak hiru deliziarekin
Arroz-fideo frijitua ganbekin
Eta abar

Hirugarren platera
Gambak banbuarekin eta perretxiko txinatarrekin
Ahatea labean
Eta abar

Prezioa: 6,95 euro

Edariak:
ardoa, ura, garagardoa edo freskagarriak.

Postrea:
platano frijitua, piña frijitua, izozkia
intxaurrekin. Kafea edo tea.

Araba etorbidea 3 ARRASATE

Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Teknologia berrienari esker, analisi biomekanikoak egiten ditugu. Zure oinendako kirol plantilla eta plantilla ortopediko erosoan neurrira izango dituzu. Galdetu konpromiso barik.

Zure oinen erosotasuna, gure bermea.



Barrenkale 15-17
Tel./Faxa: 943 76 25 03
BERGARA

Servimasa

Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak

Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
BERGARA

Noche y Dia
Morfeoren besoetan
Atsedeen Etxea

Adriano VI, 17
GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24



Podiuma

Kirolabur

Kepa Zelaia | US POSTAL TXIRRINDULARI TALDEKO SENDAGILEA |

JULEN IRIONDO/IRATI AGIRREAZALDEGI

Arrasaten lan egiten duen elorriar honek urte asko eman ditu sendagile modura txirrindularitzari lotuta. ONCE taldean ibili ostean, datorren denboraldian US Postal taldeko medikua izango da. Lance Armstrong txirrindulari handiaren alboan ibiliko da.

Gustura itzuliko zara Armstrongen albora?

Bai, oso gustura. Ezagutzen dut taldea, baina Tourra irabazi eta gero beste proiektu batean sartuta dagoela esan daiteke.

Nolatan hartu duzu US Postalera joateko erabakia?

Oraindik urtea amaitu arte, karrerarik ez dagoen arte, ONCE-Eroski taldearekin jarraituko dut. Hemen eman ditudan urteetan oso pozik ibili naiz, baina proiektu bat amaitu da eta beste bat dator; gainera, orain datorren taldea ez da ONCE-Eroski, beste talde bat baizik. Horrenbestez, horren aurrean lehendik ezaguna dudana US Postal taldekoekin joatea izan da hartutako erabakia.

Non egin beharko duzu zure lana txirrindulariekin?

Noizean behin Ameriketara joan beharko dut eta hemen ere egin beharko dut lan txirrindulariekin. Batez ere Europako lasterketan jardungo dut eurekin. Hemendik hilabetera kontrolak izango dira. Jende berria dagoenez, aurrez ezagutu egin beharko ditut, gero bertan dagoen Bel-



JULEN IRIONDO

Kepa Zelaia elorriarrak ONCE-Eroski taldean jardun du orain arte mediku lanetan.

gikako mediku batekin plangintza antolatzeko eta behar diren neurriak hartzeko.

Aurrez ere egona zara Armstrongekin, Motorolan. Nolako esperientzia izan zen?

Oso ona. Armstrongekin ez ezik gainerako taldekideekin ere gustura egon nintzen, oso talde ona zen-eta. Armstrongekin US Postalen lehenengo urtean ere

izan nintzen. Orduan egin zuen berragerpena txirrindularitzan.

Zu egon zinen garaian Armstrongek minbizia pasa berri zuen. Orain beste lasaitasun batekin jardungo duzu?

Azken bost Tourrak irabazi ditu eta beste Tour bat irabaztea zientzia fikzioa izango litzateke, baina sekula ezin da jakin. Taldearen asmoa Tourrean paper

ona egitea da, Frantziako itzulari errespetua zor zaio.

Erronka horretako partaide izatea pozgarria izango da zuretzat, ezta?

Ni pozik nago, bai taldearekin, bai Lance Armstrong berekin baita taldeak duen proiektuarekin ere.

Gauza ikusten duzu Armstrong seigarren Tourra irabazteko?

Oraindik ezin daiteke esan. Bostetik gora inork ez ditu irabazi eta Tour bat irabaztea mundu bat dela kontuan hartuta, seigarrena irabaztea, aurrez esan bezala, zientzia fikzioa izango litzateke. Armstrong paper ona egiteko gogoz dago eta prestaketa guztiak Tourrari begira egingo ditu. Ondo ateratzen zaion edo ez udan ikusi beharko da.

Zer du, ba, gizon horrek hainbeste Tour irabazteko?

Asko zaintzen da, buruan lasterketa hori du eta ezaugarri bereziak ditu; bestela, bat bera ere ezin izango luke irabazi.

ONCEko mediku izan zara. Beloki gauza ikusten duzu Armstrongi aurre egiteko?

Belokik aurten zorte txarra izan du. Irabazteko moduan ez dakit zegoen, baina gauza handiak egiteko gauza zen. Gainera, Tourrerako txirrindularia da Joseba eta lasterketa hori buruan sartuta duena eta irabazteko aukerak ere izan ditzakeena. Aurrerantzean ere Armstrongekin eta Ullrichekin batera han egongo da, beraz, euskaldunok ez dugu arduratu beharrik.

TXIRRINDULARITZA/OÑATI


Jon Odriozola txirrindulari Oñatiarrak Kelme-Costa Blanca taldean jardungo du datorren denboraldian. Balears-iBanesto proiektuan sartzekoa bazen ere, bere parte hartzea ziurra ez zela ikusita Kelmeren eskaintza onartu du. Besteak beste, Frantziako Tourrean eta Espainiako Itzulia hartuko du parte.

FUTBOLA/DEBAGOIENA

Asteburuan izan zen aldaketa. Arik preferente mailako sailkapenean debagoieneko taldeei dagokienez. Goiko tokietan dira Mondra eta Bergara, hirugarren eta laugarren, hurrenez hurren. Aloña Mendi sailkapenean erdialdean da, zortzigarren lekuan, eta Aretxabaleta, berriz, hamazazpigarrenean. Asteburu honetako partidu guztiak zapatuan izango dira. Aloña Mendik Deban jokatu du 15:45ean eta Bergarak etxean, 15:30ean. Bestalde, Mondrak eta UDAk derbia izango dute Atxabalpen 15:30ean hasita.

PILOTA/ARRASATE

Gipuzkoako taldekako txapelketako lehen fasean bost partidu jokatu ditu Aitzol Lazkano pilotari arrasatearrak eta lau irabazi. Garaipenei esker bigarren fasean da. Lazkanorekin beste bost pilotari sailkatu dira. Lehen faseko azken partidua Bergaran jokatu zuen Erran pilotariaren aurka, baita erraz nagusitu ere, tanto bakarra egiteko aukera eman zion-eta. Partidu hori erabakigarria zen, irabaziz gero bigarren faserako pasea lortuko zuelako, eta helburua lortu du.



D I S E I N U
G R A F I K O A
I N P R E S I O
D I G I T A L A

. markaren sortzea

Logotipoak
Tarjetak
Oinarrizko papeleria
Gidaliburu korporatiboa

. katalogoak

Diptikoak
Triptikoak
Liburuxkak
Menuak

. kartelak

. egutegiak

. publizitatea

. pegatinak

. argazkien inpresio digitala

...

K O H . 9 4 3 7 6 7 3 2 0
B A R R E N K A L E 4 2
2 0 5 7 0 B e r g a r a



Oihana
garitano
Katrin
bastarrika

Telefonoak
665703175
665737711



ILUSIO Kreditua

EUSKADIKO KUTXA

Orain zure desioak Euskadiko Kutxak beteko ditu



Baita maitagarri guztienak ere, Euskadiko Kutxan % 5etik beherako kontsumo-kreditua duzu zure desioak bete ahal izateko.

ILUSIO KREDITUAREN ESKAINTZA

U.T.B.aren adibidea:

%4,96

10.000euro 7 urtera kalkulatua

Interes Nominala: % 4,55
Irekiera Komisioa: % 1 (gutxienez 100 €)
Amortizazio aurreratuko komisioa: % 0
Kitapen aurreratuko komisioa: % 0
Epea: 7 urte arte

Eskaintza hau lortzeko, beharrezkoa da Nomina helbideratzea eta Kreditu Txartela eta beste bi produktu kontratatzea, honako hauen artetik: Bizi Asegurua, Etxe Asegurua, Aurreikuspen Plana eta Etxebizitza Kontua

- EAEko sukurtsaletan 03-12-10erarte balio du eskaintza honek, edo 20 milioi euro osatu arte.
- Berfinantzaketak salbuetsita daude.

Zurekin elkarlanean




CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Umeak

Egubakoitza / 2003ko azaroaren 7a / GOIENKARIAren gehigarri berezia



Haurdunaldia
Jaiotakoak urtez urte
Gastuak
Moda
Jostailuak
Psikologoaren iritzia



Erdiko Kalea 19 ARRASATE 943 79 17 87



Zur eta lur geratuko zara: jostailu guztiak dauzkagu!



Haurdunak

1 eta 12 urte
bitarteko umeak

UNITED COLORS
OF BENETTON.



ZAPATU ARRATSALDEETAN
ETA ASTELEHEN GOIZETAN **ZABALIK**

ARRASATE

Maalako Errabala, 13. 943 79 50 78



Mercedetako Andra Maria

IKASTETXEA
943 79 27 73

ARRASATE

Jose Luis Iñarra pasealekua
posta-e: mercedikas@terra.es

Haur Hezkuntza
0-2 urte
67€ hilean



Lehen Hezkuntza



Haur Hezkuntza
2-6 urte



DBH

eredua **D**

■ HAURDUNALDIA

Haurdunaldian jarraitu beharreko pauso guztiak

USOA AGIRRE

Emakume baten bizitzako gauza ederrena haurra edukitzea dela diote. Baina erditu aurretik bederatzi hilabete haurdunaldia igaro beharra dago. Denboraldi horren gaineko informazioa eman digu Alfredo Otalora ginekologoak.

Emakumeak haurdun dagoela uste duenean egin behar dio ginekologoari lehenengo bisita, eta tarte horretan komenigarria da emakumeak medikamenturik ez hartzea, aurretik medikuari kontsultatu gabe. Haurdunaldiaren lehenengo asteetan azido folikoa hartzea gomendatzen da, haurrak izan ditzakeen malformazio arazoak saihesteko.

Otalora medikuaren arabera, "lehenengo ekografia haurdunaldiaren 7. edo 8. astean egitea komeni da". Era berean, 12. asteko ekografia ere garrantzitsua da. Ekografia horretan, garondoko tolesdura edo *pliegue nuczal* delako aztarna ikus daiteke. Aztarna hori haurrak izan dezakeen malformazio genetikoaren adierazlea da, eta ekografian zerbait arraroa ikusiz gero, amniozentesi azterketa egitea aholkatzen zaio emakumeari.

Ginekologoaren kontsultara hilerio joatea gomendatzen da. "20. asteko ekografia oso garrantzitsua da. Ekografia horretan, ziurtasun osoz jakingo dugu hau-



GOIENKARIA

Haurdunaldiaren aro bakoitzak zainketa berezia eskatzen du.

rra neska edo mutila den". Haurdunaldiaren 30. astean beste ekografia bat egin behar izaten da eta, 36. astetik aurrera, kardiokotograma delakoa egiten da, umeiaren bizitasuna ikusteko.

GIMNASIAK

Ginekologoari egin beharreko kontsultez gain, ama izateko prestakuntza ikastaroak egitea ere garrantzitsua da. "Ikastaro horietan erditze egunerako prestatzen dute emakumea, eta erditzea naturalagoa izan dadin laguntzen dute".

Ez dago zehaztuta ama izateko prestakuntza ikastaroetan haurdunaldiaren zein momentutan hasi behar den. Batzuk zazpigarren hilabetera arte ez dira hasten, eta badira bosgarren hilabete hasten direnak ere; emagin bakoitzaren arabera da hori. Ikastaroetan, haurra nola formatzen doan ikasteaz gain, erditze egunean arnasa nola hartu eta haurra jaiotzeko indarra nola egin irakasten diete.

AMNIOZENTESIA

Amniozentesi azterketaren bidez, haurrak alterazio genetikoren bat duen edo ez jakiten da. Batez ere, 35 urtetik gorako emakumei zuzenduta dago eta 14. astean egitea gomendatzen da. Hala ere, ez da derrigorrezko azterketa.

Amniozentesia egin eta 24 ordura ematen da lehenengo emaitza: emaitza horren bidez, ia seguru jakingo dugu haurrak zerbait duen edo ez. Erabateko emaitza hiru astera jakingo dugu.

ETXEAN ERDITZEA

Ezohikoa da haurra etxean edukitzea. Hala ere, geroz eta emakume gehiagok aukeratu du etxean erditzea. Aukera hori egiten dutenen arabera, aparteko esperientzia da haurra etxean edukitzea; ospitalean baino intimituagoa eta naturalagoa.

Otalora medikuaren arabera, gaur egungo gizartea antolatuta dagoen moduan, ez da aholkagarria haurra etxean edukitzea. Ospitalean erditzea seguruagoa eta erosoagoa da.

HAURRAREN IZENA

Haurdunaldian buruhauste ugari ematen du haurraren izena erabakitzeak ere. Batzuek nahiago izaten dute azkeneko momentura arte itxoitea, baina gehienek aurrez ondo pentsatuta eta erabakita izaten dute haurraren izena.

Aukerak ugariak dira: euskal izenak, kanpokoak, santuenak... Liburuak ere badaude erabakia hartzen laguntzeko; Euskaltzaindiaren *Euskal Izendegia*, adibidez.



- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Mobiliario
ARENAZA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

■ HAINBAT DATU

Jaiotzek hazkunde txikia izan dute azken urteotan

USOA AGIRRE

Laurogeita hamarreko hamarkadan izandako beherakadaren ondoren, badirudi jaiotze-tasa suspertzen ari dela. Hala ere, ez dira guztiz pozteko moduko datuak.

70eko hamarkadan izan zuen jaiotze-tasak gorakada handiena Debagoiengan. Mende berrian jaiotzek pixka bat gora egin duten arren, ez dirudi oraindik hamarkada hartako zenbakietara iritsiko garenik. Jaiotzek gora egin arren, heriotzak gehiago dira oraindik ere, eta, ondorioz, berezko hazkundera oso txikia edo negatiboa da leku askotan. Euskal Estatistika Erakundearen arabera, horrela jarraituko dugu

hurrengo urteetan ere, biztanleriaren zahartzea dela-eta.

Hurrengo urteetan, beraz, biztanleriaren gorakada ez dute jaiotzek ekarriko; inmigrazioa izango da gorakada horren adierazle nagusia.

DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen ditu gurasoak honako kasuetan: bigarren semea edo alaba jaiotzek edo adoptatzean 1.100 euro ematen ditu; hirugarren edo hurrengo seme-alabak jaiotzek edo adoptatzean 1.100 euro urtero, haurrak bost urte bete arte; eta zenbait ume batera erditu edo adoptatzean, bikiak badira 2.600 euro hiru urte arte eta 1.200 euro hamar urte arte. Hiru, lau edo bost haur batera jaiotzek gero ere ematen dituzte dirulaguntzak. Kasu horiek, baina, ez dira oso ohikoak.

IKER ETA ANE, IZEN ERABILIAK

EUSTATen datuen arabera, Ane da emakumezko izenen artean lehena 2000. eta 2002. urteen artean EAEn. Ondoren daude Leire, Maria, Nerea, Irati eta Maider. Gizonezko izenetan, Iker izan da 2000. eta 2002. urteen artean jaiotakoetan gehien erabili dena. Orain arte Jon zen. Ikerren atzetik daude Unai, Mikel, Ander, Asier eta Aitor. Maria eta Mirenen kasuan izan ezik, izen beraren forma euskalduna gailendu da besteetan.


Debagoiengan eta Gipuzkoan jaiotakoak, urtez urte

Iturria: www.gipuzkoa.net

	Arrasate	Bergara	Oñati	Aretxab.	Eskoriatza	Antzuola	Elgeta	Gatzaga	DEBAGOI.	GIPUZK.
1970	336	214	159	109	82	32	16	5	953	11.248
1971	357	228	170	109	76	32	19	5	996	11.479
1972	324	228	181	101	65	33	20	1	953	11.776
1973	342	236	181	121	49	43	18	9	999	11.791
1974	391	246	164	102	72	38	9	3	1.025	11.946
1975	384	239	166	98	72	31	23	4	1.017	11.797
1976	403	239	178	111	75	33	20	5	1.064	11.862
1977	383	243	166	108	78	29	9	2	1.018	11.284
1978	363	215	153	107	48	35	10	2	933	10.475
1979	341	211	129	104	70	23	14	2	894	9.582
1980	332	211	156	92	50	30	11	2	884	8.795
1981	329	173	143	82	60	26	5	1	819	8.426
1982	296	169	138	93	54	18	6	3	777	7.863
1983	287	165	110	77	54	19	9	1	722	7.097
1984	271	174	106	60	37	18	8	2	676	6.694
1985	281	140	121	49	47	20	14	3	675	6.431
1986	232	140	110	74	35	16	8	0	615	6.229
1987	193	122	100	59	36	20	9	0	539	5.778
1988	204	118	95	63	17	13	10	3	523	5.604
1989	195	133	81	38	24	14	9	1	495	5.544
1990	171	108	80	44	23	16	5	3	450	5.378
1991	166	95	87	60	14	14	11	2	449	5.391
1992	165	126	91	57	25	13	6	2	485	5.460
1993	182	124	98	48	24	11	12	2	501	5.410
1994	140	108	92	47	24	15	7	1	434	5.263
1995	149	105	69	41	25	17	8	3	417	5.456
1996	165	131	94	52	32	15	3	0	492	5.683
1997	136	145	88	59	41	18	8	2	497	5.861
1998	142	114	97	38	22	12	5	7	437	5.794
1999	186	128	95	47	37	13	7	0	513	6.031
2000	143	123	105	64	40	17	8	3	503	6.151
2001	138	134	98	60	66	13	5	1	515	6.254
2002	191	112	75	62	44	20	7	3	514	6.328
Guzt.	23.101	15.047	10.772	6.259	3.904	1.911	975	246	62.215	685.461

N & N sol

Solarium eta Estetika Zentroa



NEGURAKO ESKAINTZA BEREZIAK

Edertasun eskaintzak:

- Hiru aurpegi garbiketa, baten prezioan
- Bi depilazio egitean manikura operari
- Gorputz tratamenduak: gorputzaren hidratazioa algekin

Zerbitzu osagarriak:

- Zelulitisaren aurkako tratamenduak
- Tratamendu erreduktoreak
- Tratamendu tinkotzaileak
- Erditze ondorengorako tratamenduak

Solariumerako bonuak:

- 10 saioko bonuarekin saio bat operari
- 20 saioko bonuarekin bost saio operari
- 30 saioko bonuarekin hamar saioko bonua operari

Etorri eta galdetu nahi duzuna inolako konpromiso barik.



Ferrerias kalea 28, behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 64 57

■ HASIERAKO GASTUAK

Sehaska, pixoihalak... Zenbat da umea ekartzea?



USOA AGIRRE

Consumer aldizkariak egindako ikerketa baten arabera, haurraren lehen urtea gurasoei 6.000 eurotik gora kostatzen zaie. Aurrekontuaren pusketa handiena haurra jaio ondoren gastatzen bada ere, aurretik ere badira aparteko gastuak.

Bistan da haurdun dagoen emakumeak aparteko gastuak egin behar dituela barne-arropa eta neurri handiko jantziak erosteko. Baina, kasu gehienetan, haurra jaio ondoren ez dira arropa horiek berriz armairutik irtengo.

Ohiko kontua da, era berean, gehiegizko kargaren ondorioz sortzen diren hanken oinazeak arintzen dituzten panty eta galterdi mordoska erostea (15 eurotik gora).

Estetika alde batera utzita, kontuan izan dezagun premiazko bisitak bakarrik ez egitearren, emakumea ginekologo pribatu batengana baldin badao, kontsulta bakoitza 48 euro inguru kostako zaiola.



PIXOIHALAK ETA ARROPAK

Lehenengo hiru hilabeteetan egunean zortzi aldiz ere aldatu beharko zaizkio pixoihalak haurrari. Hazten den heinean oihal horien kopurua murriztuz doan arren, gastua handia da. 80 aleko paketea 18 euro inguru kostatzen bada, familia horrek urtean 500 eurotik gora gastatuko du pixoihaletan. Oihalekin hertsiki loturik, badira beste hamaikatxo higieproduktu ere: termometroa, orraziak, kolonia, talkoa, kremak... Hiruhileko bakoitzean 30 bat euroko gastua. Arropa erosterako orduan, guraso askok senide eta adiskideen laguntza jasotzen badute ere, badira ezinbesteko jantziak: bodyak eta pijamak, besteak beste.

SEHASKA ETA OSAGARRIAK

Sehaska arruntaren salneurria ez da 150 euro baino txikiagoa izango, eta badira 600 euroraino iristen direnak ere. Batetik besterako aldea materialaren eta eskaintzen dituen prestazioen arabera izango da. Gastu horri, dagokion koltxoiarena erantsi beharko zaio, eta horren prezioa ere aldatu egiten da materialaren arabera. Sehaska hautatutakoan, jantzi egin beharko dugu maindirez, edredoiak eta babesgarriez. Eta horiez gain, badira bestelako osagarriak ere: bainuontzia (40 euro), paseatzeko karroa (90 eurotik 600era), otorduetan esertzeko aukitxoa (60 euro) eta ohartarazle elektronikoa (18 eurotik gora), besteak beste.

ESNEA ETA BIBEROIAK

Amak umea bularretik edoskitzea erabaki baldin badu, atal honetaz ez du zertan kezkatu (lehenengo hilabeteetan, behintzat); izan ere, tetina bat (6 euro) bakarrik erosi beharko du, horren premian baldin bada. Nolanahi ere, lehenago edo geroago, esne *maternizatua* erosi beharko du (18 eurotik gora). Lehenengo urteko elikaduraren kostua 1.080 eta 1.500 euro bitartekoa dela kalkulatu dute. Ezinbestekoak dira biberioak (3 eurotik gora) eta esterilizatzeak (25 euro). Pediatrek zuhurtziaz jokatzeko eta txupetea (3 euro) maiz aldatzea aholkatzen dute, higie hutsagatik bada ere.



Herri Lagunak 6, behea. Bergara. Tel.: 943 76 05 24



Eibar: Birjinape behea 1



- 35 mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan.
 - Tamaina guztiak.
 - Ezkontza eta estudioko argazkiak.
 - Kamerak, albumak...
- Dena aurkituko duzu hemen!



Aretxabaleta: Herriko plaza 5

■ BI URTERA ARTE

Amaren bularra, elikagai onena lehen hilabeteetan

USOA AGIRRE

Haurraren lehen asteak funtsezkoak dira etorkizunean izango duen garapenerako. Elikadurak garrantzi handia du lehen aro horretan, amaren bularra hartzeak, batez ere. Era berean, amatasun baja geroz eta pisu handiagoa hartzen ari da.

Zenbait adituk diotenez, amaren bularra hartzea beste edozein elikabide baino hobea da. Batetik, lehen hilabeteetako elikagai premiei aurre egiteko oso era berezian egokituta dago amaren esnea; eta, bestetik, amaren eta haurraren artean harreman estua ezartzen laguntzen du.

Ugaztun espezie guztiek esne berezia eta ezin hobea ekoizten dute beren kumeak hazi eta gara-

tzeko. Baina giza espeziea etapa hori aldarazten eta ordezkatzeko ahalegindu da. Aurrerapen teknologikoei esker, behi-esnean oinarritutako ordezeko biologikoa landu zen, eta esne horien lehenengo helburua bularrekoaren bizitzari eta hazkunderari eustea zen. Denbora igaro ahala, gero eta esne seguruagoak eta hobeak atera ziren neurrian, esne horiek amaren esnea ordezkatzeko hasi ziren. Baina, frogatu denez, amaren esnea jaio berriarentzat elikadura ordezkazina da, eta 5-6 hilabetera arte elikadura premia guztiak betetzeko gauza da.

Bestalde, amaren esneak elikadura artifizialak dituen arrisku asko saihesten ditu; gaixotasunak, alergiak eta obesitatea, besteak beste.

AMA LANEAN BADA?

Etiketikan kanpora lan egin arren ere, haurrari eman dakioko bularreko



Bularra emateak amaren eta haurraren artean harreman estua ezartzen laguntzen du.

GOIENKARIA



Ferrerias 35. Arrasate. 943 79 88 23

estetika zentroa

Angelika

MASAJEAK, ERLAXAZIOA ETA OSTEOPATIA

.Masajista diplomaduna

GORPUTZ TRATAMENDUA

.Itsaso Hileko buztinarekin egindako tratamendua
.Tratamendu erreduktoreak, tinkotzaileak...
.Laser bidezko depilazioa
.Drainatze linfatikoak
.Mikropigmentazioa: ezpainak, bekainak...
.Natura Bissé produktuen salmenta

DIETETIKA ETA ELIKADURAN AHOLKULARITZA

.Dietetika eta Giza Elikaduran diplomadunak

esnea. Amaren esnea eskuz edo esnea ateratzeko tresnaz atera daiteke, eta gero hozkailu edo izozkailuan gorde, haurrak esnea hartzeko ordua iritsi arte.

Adituek diotenez, ez da gomendagarria ama lanean hasi aurretik haurra zereal edo fruta-ahia jatera ohitzea. Zenbat eta denbora luzeagoz eman bularra, orduan eta hobe izango da. Horrela, haurrak hobeto jango du ahia (papilla) ama falta denean.

AMATASUN BAJA

Haurra jaio ondoren, amak hamasei hasteko atsedena hartzeko eskubidea du. Erditze ugarien kasuan, haur bakoitzeko bi aste gehiagoko atsedena eskatzeko eskubidea du amak. Atsedena horretan, lehen zuen lanpostua gorde egingo zaio amari, baja amaitutakoan lanera itzuli

ahal izateko. Hamasei asteko atsedena lanbide mota guztietan derrigorrezkoa da, baina badira lanbide batzuk bestelako hitzarmenak dituztenak, eta atsedena luzatzeko aukera dute; irakaskuntzan, adibidez, atsedena luza daiteke.


Legeak dioenez, derrigorrezko atsedena gain, amak edo aitak hiru urtera arteko eszedentzia eskatzeko eskubidea dute. Eszedentziaren lehenengo urtean lanpostua gordetzeko eskubidea izango dute. Urtebete pasatuta, ordea, lehenengo lanpostua gal dezakete. Baina hori ere kasuz kasu aztertu beharko litzateke.

Bestalde, bederatzi hilabete baino gutxiagoko haurra edukiz gero, amak egunero ordubetez lana uzteko eskubidea du haurrari bularra eman ahal izateko. Lanorduak gutxitzeko eskubidea ere badu amak.

AITATASUN BAJA

Amak eta aitak, biek lan egiten badute, aitak aitatasun baxa eskatzeko eskubidea du. Aitatasun baxa amarenarekin batera edo hori amaitutakoan eska daiteke. Baina, amak lanik eduki ezean, aitak ezin izango luke aitatasun baxarik eskatu.

Emakundek kaleratutako azken txostenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan, gaur egun guraso izateagatik hartzen diren baxen %5era baino ez da iristen aitatasun baxa. Oraindik ere ama arduratzen da seme-alabek lehen hilabeteetan.



GOIENKARIA

Haurrak norekin utzi izaten da askotan gurasoen buruhauste handienetarikoa.

Amak etxetik kanpora lan egin arren, bularreko esnea eman diezaioke haurrari

Oraindik gutxi badira ere, geroz eta gizonezko gehiagok eskatzen du aitatasun baxa

NOREKIN UTZI HAURRA?

Goizago edo geroago, gurasoek beste pertsona batekin utzi beharko dute haurra. Gehienetan, lanera itzuli beharra dutelako; baina, afari edo bestelako konpromisoren bat dutenean ere, sarri gelditu behar izaten du haurrak beste batekin.

Lehenik eta behin, ondo aukeratu beharra dago nor izan daitekeen haurra zaintzeko pertsona egokiena. Ondoren, pixkanaka joan beharra dago haurraren

dik banatzen. Lehenengo egunean hamar bat minutuz utziko dugu haurra aukeratutako pertsonarekin bakarrik. Eta pixkanaka-pixkanaka denbora luzatzen joango gara.

Haurra zaintzeko inor eduki ezean, aukera ona da haurtzaindegia. Haurrak esperientzia berriak bizi izango ditu haurtzaindegian; beste haur batzuekin egongo da eta horrek sozializazioan lagunduko dio.



GOIESKOLA

ESKORIATZA/GATZAGA
• LUIS EZEIZA

ARETXABALETA
• KURTZEBARRI L.H.
• KURTZEBARRI B.H.I.

ARRASATE
• ARRASATE HERRI ESKOLA
• ARRASATE-ARETXABALETA INSTITUTUA

ARAMAIO
• SAN MARTIN L.H.

OÑATI
• ERREKALDE L.H.
• ZUAZOLA LARRAINA B.H.I.

BERGARA
• SAN MARTIN AGIRRE L.H.
• IPINTZA B.H.I.

ANTZUOLA
• HERRI ESKOLA L.H.

ELGETA
• HERRI ESKOLA

**Bat, bi, hiru....
Pausoz pauso,
urratsez urrats,
gure ibilbidea eginez!**

■ HAURREN MODA

Pana eta larruzko jantziak nagusi aurtengo neguan

USOA AGIRRE

Gaur egungo umeen modan denetarik aurki dezakegu; betiko haur arropetatik hasi eta nagusiek erabiltzen dituzten modukoetaraino. Aurtengo neguari aurre egiteko, panazko prakak eta larruzko berokiak izango ditugu nagusi.

Udazken-negu honetako nesken modak inoiz baino ukitu femeninoagoa du. Prakak alde batera utzi eta soineko eta gonak dira orain nagusi, koloreetako leardoekin batera janzteko. Mutilei dagokienez, moda urbanoa dator aurtengo neguan; praka zabalak, txanodun kirol-jertseak, eta milaka look ezberdin. Hala nola, rockeroak, sofistikatuak edo gizon txikiak.

Ehunei dagokienez, pana da nagusi. Arropa mota guztietan aurkituko dugu material hori; soinekoetan, praktetan, jaketan... Koloreei dagokienez, urtaro honetako ohiturari jarraituz, beixak eta marroiak gailenduko dira. Arrosa eta fuksiak ere izango dira, nesketan batez ere.



ARROSA NAGUSI

Neskatxoek arropetan kolore arrosa eta fuksia izango dira nagusi. Beti izan da arrosa nesken arropetan kolore erabiliena, baina aurtengo neguan arrosaren alde sendo egin dute diseinatzaileek. Hotzik pasa ez dezaten, panazko arropa asko dator aurtengo neguan, eta berokiak ere tenperatura hotzenera aurre egiteko modukoak dira. Txikienen jantzietan larruzko txamarrak ere aurkituko ditugu.



BETIKOARI EUTSIZ

Mutikoen jantzietan urdina da oraindik nagusi, baina pixkana hasi dira mutilentzat ere gauza ezberdinak egiten. Konbinatzeko errazak diren koloreen alde egin dute diseinatzaileek; beixak eta marroiak izango dira aurtengo neguan gehien ikusiko ditugun koloreak. Pana edozein motatako arropetan aurkituko dugu. Mutiko honen jertsea, adibidez, panazkoa da, neguan ere bero-bero egoteko.



MODA URBANOA

Praka zabalak, txanodun kirol-jertseak eta txamarrak lodiak eramango dituzte hain ume ez diren mutikoei aurtengo neguan. Panaz gainera, larruzko jakak ere asko ikusiko ditugu. Mutikoei askotariko estiloak izango dituzte aukeratzeko, hala nola: rockeroak, militarrek eta helduenen moduko arropak. Nork bere izaerari dagokion arropa janzteko aukera izango du, txiki-txikitik bere estiloa ezartzen joan dadin.



LEPO ALTUKO JERTSEAK

Neskatxoek arropa gehiena arrosa kolorekoa bada ere, bestelako koloreak ere izango dira denboraldi honetan. Arropa-etxe bakoitzak bere izaera du eta etxearen arabera arrosa gehiago edo gutxiago aurkituko dugu. Helduen arropetan bezalaxe, txikienen jantzietan ere lepo altuko jertse eta niki ugari ikusiko dugu. Neguko hotzari aurre egiteko, txamarrak lodiez gain, bestelako osagarriak ere beharko dituzte: txano, eskularru eta bestelakoak.

HAURTXXOA

Arrasate pasealekua 4 • ARRASATE • Tel. 943 79 14 90



GURIDI

**altzari
denda**

Artekalea 8. BERGARA
Tel./faxa: 943 76 31 02

**koltxoi
denda**

Artekalea 6. BERGARA
Tel./faxa: 943 76 31 02

Altzariak neurrira egiten ditugu.



■ ELKARRIZKETA: ALEXANDER BARANDIARAN / IRAKASLEA

“Haur eskolak hobetu behar dira etengabe”

USOA AGIRRE

Eskoriatzako Irakasle Eskolan irakasle da Alexander, eta, horrez gain, Hazitegi ikerketa proiektuaren koordinatzaile ere bada. Hazitegi proiektua 0 eta 3 urte arteko haur eskolen gaineko ikerketa da. Haur eskolen inguruan jardun dugu.

Geroz eta guraso gehiagok eraman dituzte seme-alabak haur eskoletara. Zer ikasten dute haur eskoletan?

Ikasi hitzaren inguruan agian zehaztu beharko genuke ez garelako soilik garapen kognitiboaz ari. Kognitiboki bere errealitatearekiko hainbat kontzeptu barnertuko ditu umeak, bai bere buruarekiko –nortasunaren garapenez ariko ginateteke–, bai harremanekiko –garapen sozialaz ariko ginateteke–, bai ingurune fisikoarekiko. Eta adin tarte horretan dena oso-osorik gertatzen da; beraz,

garapenez aritu beharko genuke. Hau da, umeak bere gaitasunak garatzeko haur eskolak egokiak diren edo ez eztabaidatu beharko genuke.

Beraz, nola eragiten du haur eskolak umearen garapenean?

Aurreko galderari jarraituz, gaur egungo mundu mailako ikerketek adierazten dutenez, eztabaida puntua umearen garapena bultzatzen duten haur eskolek izan behar dituzten ezaugarrietan kokatzen da. Kalitate handiko haur eskolek umearen garapen osoan laguntzen dute, batez ere umearen garapen egokia kontuan hartzen dutelako, badakitelako nola bultzatzen den garapen hori, eta haur eskola hori lortzeko helburuarekin


Kalitate oneko haur eskolek umearen garapen osoan laguntzen dute

antolatzen dutelako. Haur eskolak ebaluatu behar direla iruditzen zait, etengabeko hobekuntza prozesuaren barne, eta posible dugu hori egitea. Horrek hainbat gurasoren lasaitasuna ekarriko lukeela uste dut.

Haurren lehenengo urtetan hainbeste denbora etxetik kanpo pasatzeak ez du eragin txarrik?

Dudarik gabe, hor oreka bat izatea garrantzitsua da. Adin tarte horretan umea helduekin erakitzen ari den harremanak berezko garrantzia du-eta. Hainbat haur eskolak lanean ibiltzeagatik ere umearekin ahalik eta denbora luzeen egotea gomendatzen diete gurasoei. Gainera egote horrek umearen behar izanetara

Umearekin ahalik eta denbora luzeen egotea gomendatzen diete gurasoei



GORKA MORRAS

egokituta izan behar du. Umeak haur eskoletan ondo egoteak ez du esan nahi familiako partaideekin egon behar ez duenik.

Seme-alabak pixka bat kokortutakoan, musika, dantza, kirola eta horrelako jardure-

Umeak gurasoekin egoteko beharra sentitzen duenean, eskatu egingo du

tan ematen dute izena. Nola eragiten dute umearen heziketan eskolaz kanpoko jarduerak?

Umea haur eskolatik aparte hainbat jardueratan badabil eta afalorduan eta oheratzerako bakarrik baldin badu gurasoekin hartu-emana, ez diogu gurekin harremanak eraikitzeke aukerarik ematen. Argi dago gurasoekin egoteko beharra duenean, modu zuzenean edo zeharkakoan eskatu egingo duela, nahiz eta hori ere ume bakoitzaren arabera ezberdina izan.



Sasoi onena
laser bidezko depilazioa egiteko

Aprobetxa ezazu *Aste bakarra* aukera:
azaroaren 10etik 14ra,

%30eko
deskontua
lehenengo saioan.

Zure kasu konkrituaren gaineko galderaren bat egiteko,
dei egiguzu inongo konpromiso barik.

LILURA 
EDERTZE INSTITUTUA

Bidekurutzeta 7
BERGARA

■ JOSTAILUAK

Jolasa bai, baina segurua

USOA AGIRRE

Haurrek jolas egin behar dute, eta jostailuek, neurri handi batean, behar hori betetzen dute. Hala ere, jostailuak erosi aurretik badira kontuan hartu beharreko hainbat alderdi, jolasa segurua eta hezitzailea izan dadin.

Askotan etxeko tresna sinpleenarekin haurraren garapena eta gozamina lortzen den arren, jostailuak ere beharrezkoak dira, baina horiek erosi aurretik hain-

bat alderdi eduki behar ditugu kontuan.

Oinarrizkoa da jostailua segurua izatea eta erabiltzaileari arazo edo istripurik ez sorraraztea. Baztertu egin behar ditugu zauri, erorketa eta erredurak eragin ditzaketen jostailuak, baita eztanda egin dezaketen jostailuak ere. Jostailu elektronikoak batzuetan gehiegi berotzen dira edo kontaktatu elektrikoak izaten dituzte, eta horiekin ere kontuz ibili behar dugu.

Haurren zaletasunak publizitatearen eraginaren edo manipulazioaren ondorio dira askotan. Guraso eta hezitzaileek lagundu egin behar diote haurrari moda-

ko jostailu baten eta luzaroan gozatuko duen jostailuaren artean bereizten.

Jostailu garestiena ez da beti onena izaten. Jostailua haurrak erabiltzeko izan behar du, eta ezin da bitrina batean gorde haurrak hauts ez dezan. Adin bakoitzean jostailu ezberdin bat da egokia, eta horretarako argibideak arreta handiz irakurri behar ditugu. Jostailu politak bilatzen saiatu behar dugu, kolore eta forma atsegina dutenak.

Bestalde, jostailu belikoak baztertu egin behar ditugu, haurraren balio negatiboak sorraz ditzakete-eta. Ahalegin berezia egin behar dugu balio posi-



GOIENKARIA

Kontu handia eduki behar da jostailuek izan ditzaketen osagarri arrisksuekin.


boak sustatzeko, hala nola: adiskidetasuna, irudimena, sormena eta sexu-diskriminaziorik eza. Jostailuak berdin balio behar du mutikoarentzat eta neskaarentzat.

Haur bakoitzaren ezaugarrien arabera aukeratu behar ditugu jostailuak, dibertiarazteaz gain, haurraren irudimena eta sormena landu behar dute-eta.



ZENBAKI JOKOA / 3-7 URTE

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ttartalo argitaletxeak zenbakiak euskaraz eta ingelesez lantzeko jokoak plazaratu dute. Jolasa eta ikasketa uztartu nahi ditu, txikitatik haurrak ingelesarekin ohi daitezzen. 3 eta 7 urte arteko haurrei dago zuzenduta. 10 euro.




XANGO / 5 URTETIK AURRERA

Bost urteko haurrentzat zuzenduta dagoen CD-ROM didaktikoa da Xango. Ikastolen Elkarrekin argitaratutako joko honek hamabi gai lantzen ditu, eta gai bakoitzeko jardura mordoak ditu jolas eginez ikasteko. Xango matxinsaltoa izango da programaren gidari. 30 euro.



EUSKOPOLI / 8 URTETIK AURRERA

Monopoly joko ezagunaren euskarazko bertsioa egin du Bizkaiko Ikastolen Elkarrekin. Jokoaren helburua hirian ahalik eta ondasun gehien erosi eta ondasunok ahalik eta hobekien kudeatuta zazpi hiriburuen jabe izatea da. 8 urtetik gorakoei zuzendua. 18 euro.



Aukera ezazu leku atsegina

*BASTER-ALDE Jatetxea - Galartza auzoa • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 24 58*

Erradiologia
Erizaindegia
Analisi klinikoak
Mamografiak
Tac orokorra
Hortzetako Tac-a

Kontsultak:

Ginekologia
Traumatologia
Barne medikuntza
Urologia
Dermatologia
Pneumologia
Enpresetako osasun azterketak
Erradiologia



**CENTRO
MEDICO
UDALAITZ**

Ferrerias 56 – Arrasate
943 79 44 22 / 943 79 44 56
inform@cmudalaitz.com

AUKERA ONENA...



TIPI TAPA HAURTZAINDEGIA
Mariaren Lagundia ikastola
Ramon Oiarzabal kalea
Tel. 943 76 25 40

Erosten jakin:

ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU



Erosten jakin

Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko azaroaren 7a

Kultura
eta
aisialdia



Azaroaren
7tik 14ra



HAITZBELARRA

Origanum vulgare

Lasagarri moduan efektu bikainak ditu. Infusioan har daiteke. Bestalde, zirkulaziorako ere oso komenigarria da, baita digestioa ondo egiteko ere. Gosegarri bezala ere eragiten du, italiar sukaldariek ondo dakiten bezala.



AINGERUBELARRA

Angelica archangelica

Debagoienean oso arrunta da sendabelar hau. Digestio arazoei aurre egiteko dator ondoen, eta, oro har, nahaste gastriko mota guztiendako. Beste eragin batzuk ere baditu: adibidez, indarberritzeko oso ondo dator, baita gosea pizteko ere.



BORRAIA

Borago officinalis

Giltzurrunetarako erabiltzen da. Batez ere, erreuma, hepatitis... dutenei ondo doakie. Bestalde, izerdia eragiten du; hortaz, komenigarria da bronkitisa, anginak, eztula... dugunean. Azala hobeto edukitzeko ere erabil daiteke.



URREBOTOIA

Ranunculus repens

Urdaileko arazoak konpondu edo hobetzeko da erabilgarria urrebotoia. Era berean, lorik egin ezin dutenei ere on egiten die belar honen infusioak. Hilerokoak eragindako minak edo nahasketak dituzten emakumeendako ere mesedegarria du.

MENDI ETA ZELAIOK, SENDAGAI ITURRI

Sendabelarrek osasun arazo asko konpontzeko edo hobetzeko aukera ematen digute

Osasun nahasketa txikiena dugunean, gutariko askok botikara jotzen dugu gehienetan. Batzuetan, hori beharrezkoa da; baina, askotan, osasun arazo horien konponbidea askoz modu errazago, merkeago eta naturalagoan lor dezakegu. Gure mendiotan edonon dauden sendabelarrek ematen digute irtenbide hori.

Euskal Herriko baserri gehienetako familietan zegoen sendabelarretan aditua zen pertsona bat; gehienetan, etxekoandrea edo beste emakumeren bat. Amak alabari pasatzen zion antzinako jakituria mota horretako bat zen sendabelarrena. Gaur egun, ordea, ahaztu samar dago jakintza hori, "horren

barrik ez dutelako gazteek", diosku Debagoieneko aditu batek.

IKASTAROA BERGARAN

Sendabelarrek abantaila asko eskaintzen dizkigute: aurkitzen oso errazak dira gure ibarreko mendiotan; belarrok ukendu eta infusioak egiten ikastea

erraza da; eta osasun arazoak konpontzeko modu merkea dira. Beste erabile- ra batzuk badituzte: perfumeak egitea...

Lehen Arrasaten bezala, orain Bergaran dago abian sendabelarren gaineko ikastaroa, antzinako jakituria hori berreskuratzeko. /14

LEIRE KORTABARRIA

Gorputzez eta animuz ondo egoteko

SENDABELARRAK EZAGUTU ETA ERABILTZEKO IKASTAROA ANTOLATU DUTE BERGARAN. GUREAN ZALETU ASKO DITUZTE BELARROK

LEIRE KORTABARRIA

Arrasateko AED elkarteak antolatu zuen lehenengo sendabelar ikastaroa, eta horrek izandako arrakasta ikusita, orain Bergarako Jardun elkarteak hartu dio txanda. Azaroaren 10ean hasiko da eta, lau egunean, infusioak, ukenduak eta askoz gehiago egiten ikasi izango da.

Sendabelarrak mundu aberatsa dira: ez dira bakarrik urduri gaudenean hartzen dugun mantzani- infusioa, edo katarroa dugunean arnasketak egiteko erabiltzen dugun menda edo eukalipto. Hori baino askoz aukera gehiago eskaintzen dizkigute sendabelarrok.

Eta aukera horiek zeintzuk diren hobeto jakiteko parada dugu Bergaran, azaroaren 10ean hasiko den ikastaroaren bidez. Zorion Insausti dietetikan eta sendabelarretan aditu ordiziar- rrek emango du ikastaroa. Lau egunekoa izango da, eta horietan ez da izango modurik sendabelar- ren aukera guztiak esploratzeko. Sendabelarrek erabilera ugari izan ditzaketen arren, honakoei emango diote arreta handien Bergarako ikastaroan: bizkarreko minak, hezurretako eta giharre- tako minak, tendinitisa, kolpe- ak...

Baina Insausti eta Deba- goieneko aditu batzuek dakiten moduan, sendabelarrek osasun arazo asko erabiltzeko balio dute: digestio arazoak, infekzioak, giltzurrun-nahasteak, hilerokoarekin lotutako arazoak, lo egiteko



Arrasaten zaletasun handia dago sendabelarrokiko. AED elkarteak rally-a eta erakusketa antolatu ohi ditu.

arazoak, urduritasuna... Zorion Insaustik honela diosku: "Sendabelarrekin, osasun arazo gehien-gehienak osatu daitezke. Salbuespen bakarrik dira gaixotasun oso-oso larriak, edo jaiotzeko gaitzen kasuak".

ONDOEN, URTARO ALDAKETETAN

Iritziak iritzi, sendabelarrak ibar- rean aspalditik ezagutzen diren erremedioak dira, Europako Atlantikoko herrialdeetan beza- la. Normalean, udaberri partean

aurki daitezke errazen. Erremediook hartzeko une hobeak ere badaude. Zorion Insaustiren esanetan, une horiek dira "urtaro aldaketak"; hortaz, oraingo hau une egokia izango litzateke. Insaustiren esanetan, "garai horietan, metabolismo aldaketa izaten da, eta hori momentu ona da erremedioa hartzeko".

Oso uste zabaldua da sendabelarrek konponbide guztiz natu- rala eta albo-efektu gabekoa ema- ten dutela. Hori horrela da, neu-

rri batean. Baina kontuz ibili beharra dago. Jone Bergaretxe arrasatearra asko ibiltzen da sendabelarrekin, eta berak ohartarazten digu: "Ondo dago sendabelar infusioak hartzea, baina bere neurrian. Ez da ahaztu behar sendabelarrek botikak direla, eta bere toxizitatea ere badutela". Hortaz, sendabelarrak hartzeko- tan, onena da denbora batean hartzea eta gero atsedean hartzea. Izan ere, beste edozerk bezala, horrek ere bere neurria behar du.

Kolonia-ura ere, etxean

Gaixotasun eta osasun garazo arruntak osatzeko balio dute sendabelarrok. Debagoienean aurki daitezkeen artean, gehienek balio dute giltzurrun edo digestio arazoak konpontzeko (pixa-belarra, horma- belarra, menda, utzuria...), eztarria edo sinusitisa garbitzeko (izusta, biribela- rra, kalbobelarra...), azaleko arazoei aurre egiteko (intxu- sa...), eta abar.

Baina sendabelarren erabilerak ez dira sendaketa- ra mugatzen. Etxean eginda- ko produktu gustagarri askoak ere egin ditzakegu eurekin. Bergarako ikasta- roan irakatsiko da, esate baterako, kolonia-ura eta desodorantea egiten. Ziur jende askok egin duela bere kabuz arrosa edo erromero- ko kolonia-ura, etxean. Botikan erosi behar da alkohola, eta horrekin nahastu infusioa.

Bestalde, aromaterapia egiteko balio dute belar askok, izpilikuak, eukalipto- ak edo mendak, esate batera- ko. Hortaz, belarrak animu goibelean gabiltzanean ere lagungarri izan daitezke. San Juan belarra, adibidez, goibeltasunaren aurka erabiltzen da.

JONE BERGARETXE / SENDABELARRETAN ADITUA

"Oso erraza da sendabelarrak erabiltzen ikastea"

Jone Bergaretxe Arrasate- ko Urizarri auzokoa da. Baserri inguruan batzen ditu hain gustuko dituen sendabelarrak.

Etxe inguruan hamaika sendabelar dituzu aukeran, ezta?

Bai; edozein baserri inguru- tan daude sendabelar asko, eta oso erraza da horiek aurkitzea gure ibarrean.

Eta erraza da sendabelar bakoitza errekonozitzen ikastea?

Bai, oso erraza. Ez da askorik ikasi behar. Ohitura apur bat hartzen duenarentako, ez dago sendabelar bat beste batekin nahasteko inongo modurik.

Zeuri zelan sortu zitzaizun sendabelarreko zaletasuna?

Etxean, amak betidanik pres- tatu izan ditu sendabelarrok infusioak eta ukenduak. Amaren anaia bat Ameriketara bizi zen, eta handik ekartzen zituen belar asko. Gaur egun, ehun bat mota menderatzen ditut, etxe inguruan ditudanak, alegia. Baina infusio eta ukendu horiek egiten ikastea ez da batere zaila, eta edozeinek ikas dezake.

Zein da sendabelarrak biltzeko urteko sasoi onena?

Badaude hainbat sasoi urte- an. Gehien-gehienak apiriletik ekainera aurkitzen dira.

Zeintzuk dira, bada, hemen sarrien aurkitzen diren sen-

dabelarrak eta gehien erabiltzen direnak?

Zerrenda luzea da. Batzuk oso ezagunak dira eta jende askok prestatzen ditu: adibidez, mantzani- la, lasaigarri moduan; menda eta eukalipto, eztarria garbitzeko; belar bedeinkatua, lo egiteko... Pixa-belarra delakoa, *Lapidarium* belarra, hori oso-oso ezaguna da, baita oso erabilia ere, giltzurrunak garbitzeko. Baina beste asko ere badaude: gibe- lerako, horma-belarra... lo egite- ko, ezki-ura, garraiska, lo-belarra, San Juan belarra... infekzioei aurre egiteko, negakina, zauri- belarra... Baina guztiak dira oso errazak aurkitzen eta erabiltzen; ez dute sekretu handirik.



Jone Bergaretxe.

Infusioaz gain, ukendu moduan ere har daitezke...

Hala da. Sendabelar batzuk onak dira kolpeak osatzeko, bai- ta azala hobetzeko ere, orokorre- an. Sinusitisarendako ere ondo doaz berbena ukenduak. Sasoi baten, oilo-gantza urtu, eta horre- kin nahastuta prestatzen ziren ukenduak. Orain, normalean, argizariarekin egiten dira, ordea.

Baina badago erabilera asko jendeak ez dituenak eza- gutzen, ezta?

Adin batetik aurrerako jen- deak ezagutzen ditu sendabela- rrok, bai. Gazteek, ez hainbeste, eta uste dut hori gertatzen dela ez dutelako horien premiarik, baina pena da.

IKUSKIZUNAK / KIRMEN URIBE ETA MIKEL URDANGARINEN SAIOA

NIREAUKERA

'Zaharregia, txikiegia agian'

POESIA ETA MUSIKA IKUSKIZUNA EGINGO DUTE ESKORIATZAKO HUHEZI-N DATORREN EGUENEAN

LEIRE KORTABARRIA

Poesia eta musika izango dira nagusi datorren egunean, azaroak 13, Eskoriatzako Humanitate Fakultatean, 19:00etan. Izan ere, Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinek *Zaharregia, txikiegia agian* ikuskizuna egingo dute, Bingen Mendizabal eta Rafa Ruedarekin batera.

Zaharregia, txikiegia agian izena euskararen inguruko poema batetik hartu zuen Kirmen Uribe, zabaldu nahi duen mezua laburbiltzen du-eta: "Euskara, Euskal Herria, agian, zaharregia, txikiegia dela gaur egungo garaietarako, baina, azken baten, euskaldunok munduari begiratzeko modu jakin bat eskaintzen dugu, bizi izateko eta sentitzeko modu bat".

Ikuskizunaren oinarria da, alde batetik, Kirmen Uriberen poesia. Idazleak bere azken liburuko poemak irakurriko ditu, *Bitartean heldu eskutik* bere beste idazlan bat eta Euskal Herriko egile batzuen poemekin batera. Irakurketekin tartekatuz, Mikel Urdangarinek proiektu honetarako egindako kantuez gain, aurreko diskoetakoak ere abesten ditu. Ekitaldia biribiltzeko, kolorez betetako proiektioak eskainiko dituzte.

BESTE BI LAGUNEKIN

Gaur egungo hainbat ardurazko plazaratzen dituzte egileek ikuskizunaren bitartez, modu berri, garbi eta erakargarrian. Horretarako, azkenaldiko literaturaz eta



Uribe eta Urdangarinek asmatutako ikuskizunak arrakasta handia izan zuen New York hirian.

musikaz baliatzen dira Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarin.

Ikus-entzutekoak lau euskal sortzaile batzen ditu, kulturaren hainbat arlotan dihardutenak: poesia (Kirmen Uribe), kantagintza (Mikel Urdangarin), zinema (Bingen Mendizabal, hainbat filmetako musikaren sortzailea, biolinarekin oraingo honetan) eta rock alternatiboan (Rafa Rueda, rock talde berritzaileetako kidea, gitarra elektrikoarekin).

NEW YORKEN HASI ZIREN

Zaharregia, txikiegia agian ez da bakarrik datorren egunean Eskoriatzako ikusi ahal izango dugun saioa. Egitasmo oso bat da, eta bere historia ere badu. Egitasmo horrek eraman zituen Kirmen Uribe idazlea eta Mikel Urdangarin musikaria New Yorkera, joan den udaberrian. Han sei emanaldi egin zituzten, New Yorkeko beste horrenbeste areto esanguratsutan, poesia eta musi-

ka uztartuta. Han ere lagun izan zituzten Bingen Mendizabal eta Rafa Rueda.

Bira txiki hark arrakasta handia izan zuen –horren adierazgarri, *The New Yorker* eta *Open City* aldizkarietan agertu zirela–, eta orain Debagoienara datoz, Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako fakultatera, hain zuzen ere, hango hura zuzeneko emanaldi batean eskaintzera. HUHEZIn izango da, egunean, 19:00etan.



'MAREN' Kepa Junkera

Kepa Junkeraren *Maren* diskoa oso gustuko dut, eta edozeini gomendatuko nioke. Iruditzen zait musika tresna askoren arteko lotura primeran egiten duela. Beti ezagutu dugun euskal trikitia baino gehiago eskaintzen du; adibidez, trikiti doinuei atzerriko abesbatzaren baten doinuak gehitzen dizkiolako. Era berean, musika estiloen artean egiten duen lotura horrek kulturen arteko lotura dakarrelako gustatzen zait diskoa. Aberastasun handiko lana eskaintzen digu, oro har. Kepa Junkeraren lehen lana ere ezagutzen nuen, baina bereziki gustatzen zait disko honekin egin duen bilakaera. /L.K.



Elen Kortajarena

22 urte, zarauztarra. Arrasateko Txatxilipurdi taldeko ume saileko arduraduna.

SAN MILIXANAK 2003



San Milixan, ardikixa jan eta aketeixan. Zatoz Gatzagara!

- Adar tailatzea
- Uztarriak eta taila-lanak
- Makilak, tailatzea, maketak
- Erliebe handiko taila
- Gaztainondo-zumitzen otarregintza
- Beira puztu modelatua
- Turroia
- Lore siku eta prentsatuak
- Argizari eskulangintza
- Artaorritzko alfonbrak
- Gaztaegilea keritzara
- Ehoziri lanak
- Ardatzez irundakoak
- Argintza
- Gazta egiteko tresneri tradizionalak
- Forja-lan artistikoa



LEINTZ GATZAGAKO
UDALA



Azaroak 7-14

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

ANTZERKIA

ANTZUOLA

► **Zapatariak eta prakagorriak** izeneko itzal-antzerki emanaldia egongo da bihar, zapatua, Olaran etxean, 18:00etan.

ARRASATE

► **Guillermo Velazquez eta Xichu mendilerroko lehoien eta Jon Sarasuaren** emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, Amaia Udal Antzokian, 22:30ean. Ahozko Inprobisazioa Munduan delako zikloaren barne dago ekintza hori.

BERGARA

► **Sgorbypark** antzezlanaren eskainiko du Fabbrica del Vento (Italia) taldeak gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean.

► **Fakundo** komedia musikala antzetzeko du Moito & Cia taldeak bihar, zapatua, Nahikari tabernan, 00:00etan. Tabernaren 18. urteurrenaren ospakizunen barne dago ekitaldi hau. Antzerkiaren ondoren, festa eta opari banaketa egongo dira.

► **Zirkus Mirkus** antzezlanaren eskainiko du Detraka taldeak bihar, zapatua, Munibe plazan, 17:00etan. Euria eginez gero, pilotalekuan izango da. Umeei zuzendutako emanaldia da.

ESKORIATZA

► **Zaharregia, txikiegia agian** poesia eta musika emanaldia egongo dute Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal eta Rafa Ruedak datorren egunean, azaroak 13, Unibertsitateko areto nagusian, 19:00etan.

IKASTAROAK

ARRASATE

► **Giza-ekonomia enpresen kudeatzaile** ikastaroa emango du INEMek azaroaren 14tik abenduaren 19ra bitartean, Donostian eta Lasarten. Enpresa proiektu bat garatu gura

dutenei dago zuzendua. Helburua da batez ere giza ekonomia arloan prestakuntza ematea. Argibide gehiagorako, deitu Arrasateko Enplegu Bulegora (943 79 71 45).

BERGARA

► **Sendabelar ikastaroa** antolatatu du Jardun elkarteak azaroaren 10ean, 17an eta 24an eta abenduaren 1ean. Deitu 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 telefonoetara, edo idatzi kulturajardun@topagunea.com helbidera.

MUSIKA

ARAMAIO

► **Arrasate Musikaleko txistu taldeak** emanaldia egongo du gaur, egubakoitza, Gantzagako elizan, 21:30ean.

ARRASATE

► **Itxaropena abesbatzak (Elgoibar)** emanaldia egongo du bihar, zapatua, San Frantzisko elizan, 20:00etan, Goikobaluk antolatuta.

► **Jousilouli** taldearen emanaldia egongo da datorren egubakoitzean, azaroak 14, gaztetxean, 22:30ean.

BERGARA

► **Machine head eta Kill II This** taldeek emanaldia egongo dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Jauko Barik, R eta Eco War** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

► **Fundacion Tony Manero eta Los Amigos Invisibles** taldeen emanaldia egongo da bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. Segidan, funky jaialdia egongo da egunsentira arte.

► **Napalm Death eta Legen Beltza** taldeek kontzertua eskainiko dute etzi, domeka, Jam aretoan, 20:00etan.

► **DJ Angel eta DJ Juanma** disko jartzaileek emanaldia egongo dute bihar, zapatua, Go-Jam aretoan, 02:00etan.

► **Paradise lost eta Splitt 77** taldeen emanaldia egongo da datorren egubakoitzean, azaroak 14, Jam aretoan, 22:00etan.

OÑATI

► **Tanta (Tolosa) eta Akauzate (Azkoitia)** taldeen kontzertua egongo da bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean. Euskal Herriko rock berriaren adierazle dira bi taldeok.

JAIK

ARAMAIO

► **San Martin jaiak** izango dira datorren asteburuan. Herriko zaindarien omenez, hainbat ekitaldi egongo dira: bihar, zapatua, Trikitilari Eguna izango da, eta 18:00etan, kalejira egongo da. Buzkantzak eta ardo beltza banatuko dituzte herriko plazan. 19:00etan, sei bildots zotz egongo dituzte. Ostean, luntxa egongo da trikiti eskolako ikasleendako.

► **San Milixan jaiak** ospatuko dituzte Gantzagako auzoan asteburu osoan.

BERGARA

► **Gaztain-jana** egongo da etzi, domeka, Nahikari tabernan, 19:30ean, Josu eta Jokin trikitilariak girotuta. Tabernaren 18. urteurrenaren ospakizunen barne dago ekitaldi hau.

ELGETA

► **Gaztaina erre jaiak** ospatuko dute gaur, egubakoitza. Gaztaina banaketa egongo da Herriko Plazan, 19:00etan, borondatearen truke. Gero, kontzertua egongo da gaztetxean, 23:00etan, Eraso! eta Supercools taldeen eskutik.

LEINTZ GATZAGA

► **San Milixanak** ospatuko dituzte bihar eta etzi. Bihar, zapatua, hainbat ekintza egongo dira hurbiltzen diren guztiendako; hala ere, egun handia etzi izango da, domeka. Egun horretan ospatuko dute gatzagarrek San Milixan azoka eta XI. Langintzen Feria. 16 artisau elkartuko dira Gatzagako frontoian. Goizez eta arratsaldez egongo da zabalik, bazkaltzeko tarte batekin.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Pasaiaiko portua: iragana, oraina, etorkizuna** erakusketa ikusteko aukera dago gaur arte, egubakoitza, Monterronen, 18:00-20:00.

BERGARA

► **Sara Otaño** margolariaren lanak ikusteko aukera dago etzira arte, domeka, kultura etxean, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

► **Edurne Erañaren** margo ikasleen lanen erakusketa ikusteko aukera dago Nahikari tabernan.

OÑATI

► **Amnesty International** taldearen erakusketa egongo da kultura etxean, azaroaren 14ra arte, egubakoitza. *Giza eskubideak, emakumezkoen eskubideak* izenburua du erakusketak.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Nola aukeratu jostailu egokia?** hitzaldia egongo da datorren eguaztenean, hilak 12, eskolan, 18:30ean.

ARETXABALETA

► **Elikaduraren gaineko berbaldia** egongo da Muru-Alde elkartearen datorren eguaztenean, azaroak 12, 19:00etan.



► MUSIKA

HIP-HOP JAIALDIA EGONGO DA BIHAR, ZAPATUA, MONDRAGOEN

Hip-hopa izango da nagusi bihar, zapatua, Arrasateko gaztetxean; izan ere, jaialdia antolatatu dute hango eragileek. Hip-hop musikaz gain, ordea, beste musika estilo eta ekintza batzuek gozatzeko aukera ere izango dute hara joaten direnek. Honako ekitaldiak antolatatu dituzte: 16:00etan, graffiti egileak egongo dira; 18:30ean, *break-dance* emanaldia, Amenra Crew-ren eskutik; 22:00etan, *scratch* erakustaldia eta DJ Travis Texasko disko jartzailearen saioa; 23:00etan, Voz Armada Burgosko taldearen hip-hop estiloko kontzertua; eta, arratsalde osoan, gurean oso ezagunak diren DJ Kaiet, DJ Balza eta DJ Enekoren emanaldia. Sarrerak lau eurotan salduko dituzte.

Non: Arrasateko gaztetxean. **Noiz:** azaroak 8, zapatua. **Ordua:** 16:00etan hasiko da. **Txartelak:** 4 euro.

NATUR HOUSE
Dietetika eta Elikadura

KONTSULTA DOHAINIK
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.

EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomatu

Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34



DEBAGOIENKO MUSIKA ESKOLA GUZTIEN KONTZERTUA ARRASATEN

Debagoieneko musika eskola guztietako taldeek elkarrekin egingo dute emanaldia, lehenengo aldiz. Arrasate Musikalen ideia izan da, eta Eskoriatza, Aretxabaleta, Bergara, Oñati, Soraluze eta Mondragoeko musika eskolek parte hartuko dute. Musika Eskola bakoitzak emanaldi bana egingo du. Ekitaldia Arrasateko Amaia Udal Antzokian izango da datorren egubakoitzean, azaroak 14, 19:00etan.

► **Emozioen trataera** hitzaldia egingo du Donostiako Udaleko Ongizate Saileko Edurne Agirrezabalak Kurtzebarri eskolan datorren egunean, hilak 13, 18:00etan.

► **Dastaketa ikastaroaren** gaineko hitzaldia egingo du Mikel Garaizabal enologoak datorren egunean, azaroak 13, Muru-Alde elkartearen, 19:00etan.

ARRASATE

► **Emakumea prentsan eta publizitatean** gaiaren inguruan

Feminismo Eskolako jardunaldia egongo da datorren eguaztenean, azaroak 12. Nati Abril kazetariak dinamizatuko du saioa. Emakume Txokoa, 19:00etan.

► **Gasteizko emakumeak, kultura eta heziketa** delako bisitaldi gidatua antolatu dute Emakume Txokoko arduradunek. Datorren zapatuan izango da, hilak 15, Gasteizen, eta Artium museoa ere bisitatuko dute. Izena emateko mugaeguna azaroaren 11 da. Deitu 943 79 41 39 telefonora.

BERGARA

► **Jan daitezkeen eta kutsagarriak diren perretxikoen** inguruko informazioa emango du Javier Elortzak gaur, egubakoitza, Pertxa elkartearen, 20:00etan.

ESKORIATZA

► **Gipuzkoako Bertso Txapelketa**ko lehenengo finalerdia azaroaren 16an jokatu da, eta sarrerak salgai daude kiroldegian, Mirentxu tabernan eta Dorleta paper dendan.

LEINTZ GATZAGA

► **Sendabelarren gaineko** berbaldia egingo du Alberto Altubek gaur, egubakoitza, Garro jauregian, 18:30ean.

OÑATI

► **Amnesty International** taldeko Arantza Lekuona kideak hitzaldia egingo du datorren eguaztenean, azaroak 12, kultura etxean, 19:00etan.

► **Oñatiko ezker abertzaleak** herri batzarra egingo du datorren egunean, azaroak 13, kultura etxean, 19:00etan. Ezker abertzalearen ildo politiko berria, Ibarretxe Plana... eztabaidatuko dituzte, besteak beste.

► **Astronomiaren inguruko** talde bat sortu gura dute, eta bilera bat egingo dute datorren egubakoitzean, azaroak 14, gaztelekuan, 19:30ean. Edozein herri eta adineko jendea dago gonbidatuta.

LEHIAKETAK

ARAMAIO

► **Partxis Lehiaketa** egongo da bihar, zapatua. 6 urtetik gorako edozeinek har dezake parte. 16:30ean hasiko da txapelketa, osoko bilkuren aretoan. Ez dago alde zuretik izena eman beharrik.

Zinema

ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

La pelota vasca

Zapatua: 19:00, 22:00.

Domeka: 19:00.

Astelehena: 19:00.

Pi

Eguena, azaroak 13: 21:30.

BERGARA

■ NOVEDADES

Dos policías rebeldes 2

Egubakoitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30.

Domeka: 17:00.

Las mujeres de verdad

tienen curvas

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30.

Film laburrak: Belarra,

Dortoka uhartera,

Basurdea, Terminal,

Lepokoa, Topeka

Eguena, zine kluba: 20:00.

OÑATI

■ OÑATIKO ZINEMA

La pelota vasca

Egubakoitza: 19:30, 22:30.

Zapatua: 19:30, 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30, 22:30.

Martitzena: 19:30, 22:30.

El libro de la selva 2

Zapatua: 17:00.

Domeka: 17:00.

Un hombre sin pasado

Eguena, zine-kluba: 20:00.

EIBAR

■ UNZAGA

Matrix revolutions

Egubakoitzetik eguaztenera:

17:00, 19:30, 22:15.

■ RIALTO

Te doy mis ojos

Egubakoitzetik eguaztenera:

17:00, 19:30, 22:15.

GASTEIZ

■ GURIDI

Crueldad intolerable

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Mystic River

Egubakoitzetik domekara:

17:00, 19:45, 22:30.

Matrix revolutions

Egubakoitzetik domekara:

17:30, 20:00, 22:30.

La seguridad de los

objetos

Egubakoitzetik domekara:

17:00, 19:45, 22:30.

Basic

Egunero: 17:30, 22:30.

Goodbye Lenin

Egubakoitzetik domekara:

17:00, 19:45, 22:30.

La pelota vasca

Egunero: 20:00.

Hollywood:

departamento de

homicidios

Egunero: 17:30, 22:30.

Días de fútbol

Egunero (martitzena izan ezik): 20:00.

Oriente es Oriente

Eguena, azaroak 11: 20:00.

■ MIKELDI ZINEMAK

Matrix revolutions

Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

Goodbye Lenin

Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

Underworld

Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

La pelota vasca

Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

Enigma

Egunero: 20:15.

Amar peligrosamente

Egunero: 17:30, 22:45.

Piratas del Caribe

Egunero: 17:15.

Dos policías rebeldes 2

Egunero: 17:00, 19:45, 22:45.

Buffalo soldiers

Egunero: 20:00, 22:30.

Crueldad intolerable

Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

Martitzena eta eguena,

ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

Te doy mis ojos

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Betizu izar artean

Egubakoitzetik domekara:

17:00.

El final de la noche

Egubakoitzetik domekara:

18:15.

La flaqueza del

bolchevique

Egunero: 17:30, 22:30.

Planta 4ª

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

En la ciudad

Egubakoitzetik domekara:

17:00, 19:45, 22:30.

El punto sobre la i

Egunero: 20:00.

Platillos volantes

Egubakoitzetik domekara:

17:00, 19:45, 22:30.

La mancha humana

Egubakoitzetik martitzenera:

20:00, 22:30.

Dogville

Egubakoitzetik domekara:

17:00, 19:15, 22:30.

Film labor emanaldia

Eguaztena, azaroak 12, eta

eguna, azaroak 13: 22:30.

■ ABACO-LAKUA ZINEMAK

El mexicano

Egubakoitza eta zapatua:

16:10, 18:10, 20:10, 22:10,

00:30.

Domeka: 16:10, 18:10, 20:10,

22:10.

Freddy contra Jason

Egubakoitza: 16:15, 18:15,

20:20, 22:25, 00:45.

Zapatua: 20:20, 22:25, 00:45.

Amar peligrosamente

Egubakoitzetik domekara:

17:00, 20:00.

Matrix revolutions

Egubakoitza eta zapatua:

16:30, 19:30, 22:15, 01:00.

Domeka: 16:30, 19:30, 22:15.

Dos policías rebeldes 2

Egubakoitza eta zapatua:

16:05, 19:00, 22:00, 01:00.

Domeka: 16:05, 19:00, 22:00.

Lo más cercano al

cielo

Egubakoitza eta zapatua:

16:00, 18:00, 20:00, 22:05,

00:30.

Domeka: 16:00, 18:00, 20:00,

22:05.

Hollywood,

departamento de

homicidios

Egubakoitza eta zapatua:

16:25, 20:05, 22:25, 00:45.

Domeka: 16:25, 20:05, 22:25.

Divina pero peligrosa

Egubakoitzetik domekara:

16:20, 18:20.

Underworld

Egubakoitza eta zapatua:

17:15, 19:45, 22:20, 01:00.

Domeka: 17:15, 19:45, 22:20.

Soñadores

Egubakoitza eta zapatua:

20:05, 00:30.

Domeka: 20:05.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX

Matrix revolutions

Egubakoitza eta zapatua:

15:30, 18:30, 21:30, 00:30.

Domeka: 12:15, 16:00, 19:00,

22:00.

Hollywood:

departamento de

homicidios

Egubakoitza eta zapatua:

15:40, 17:55, 20:10, 22:25,

00:40.

Domeka: 12:15, 15:40, 17:55,

20:10, 22:25.

Crueldad intolerable

Egubakoitza eta zapatua:

16:40, 18:40, 20:40, 22:40,

00:40.

Domeka: 12:15, 16:40, 18:40,

20:40, 22:40.

Dogville

Egubakoitza eta zapatua:

16:00, 18:45, 21:45, 00:25.

Domeka: 12:15, 16:00, 18:45,

21:45.

Mystic River

Egubakoitza eta zapatua:

16:00, 18:55, 21:40, 00:15.

Domeka: 12:15, 16:00, 18:55,

21:40.

Underworld

Egubakoitza eta zapatua:

15:45, 18:00, 20:15, 22:30,

00:45.

Domeka: 12:15, 15:45, 18:00,

20:15, 22:30.


El mexicano

Egubakoitza: 16:00, 19:00,</

ESKER ONA

Ciriaco Arana Pagalday

Arrasaten hil zen 2003ko azaroaren 3an, 82 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Felix Garmendia Iriarte

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 9an, 10:30ean, **Bergarako** Santa Marina parrokian.




Elizkizunetara joango zaretenoi, aldezturik eskerrik asko sendikoen izenean: emaztea, Mari Karmen Azkarate; seme-alabak, Martin, Maria Teresa eta Gorka Aurrekoetxea; amaginarreba: Maria Pilar Murgoitio.

URTEURRENA

Maxi Cáceres Delgado

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 9an, 13:00etan, **Bergarako** Santa Marina parrokian.




Elizkizunetara joango zaretenoi, aldezturik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Eduarne Urzelai Osa

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 9an, 13:00etan, **Bergarako** Santa Marina parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldezturik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Valentina Cillaurren Azkargorta

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 9an, 12:00etan, **Aramaioko** San Martin parrokian eta 12:30ean **Arrasateko** San Juan Bautista elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldezturik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Antonia Gallastegi Larrañaga


Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 9an, 10:30ean, **Bergarako** Santa Marina parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldezturik eskerrik asko sendikoen izenean.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez **GOIENKARIAren** ordezkaritzetako batera.

Goienkaria
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 75 €.



ESKER ONA

Manuel Zalakain Muguruza

Bergaran hil zen 2003ko urriaren 27an, 71 urte zituela.

Domekan, azaroaren 9an, Bergarako Santa Marina parrokian haren aldeko meza 13:00etan.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Karmen Astigarraga Gabilondo

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 9an, 13:00etan, **Bergarako** Santa Marina parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldezturik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Josefa Egidazu Arregi

Victoriano Telleriarteren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 9an, 10:30ean eta 13:00etan, **Bergarako** Santa Marina parrokian.




Elizkizunetara joango zaretenoi, aldezturik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Martin Casado Raya

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 9an, 13:00etan, **Bergarako** Santa Marina parrokian.




Elizkizunetara joango zaretenoi, aldezturik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

Antonio Quiroga Pérez

Arrasaten hil zen 2003ko urriaren 24an.

Joan zinen gure artetik, baina zure umore ona eta alaitasuna gogoratuko ditugu eta gure artean jarraituko duzu betiko.



Fagor Ederlaneko lagunak

ESKELA

Mikel Otero Aranda

Oñatin hil zen 2001eko azaroaren 13an.

Familiak ez zaitu ahaztu.



Familiakoak.

AIPAGARRI

Roberto Izagirre

BERGARA

Ondarroako Testamentu Gutun Lehiaketa Roberto Izagirrek irabazi du. Aurreko egubakoi-tzean jaso zuen saria Ondarroan eta gutun irabazlea irakurri zuen ekitaldian. Testamentu gutuna izan arren zerbait xelebrea izango du, sari banaketara hurbildu ziren lagunek gogoz barre egin zuten-eta.



Vene Herrero

ARRASATE

Veneren aurpegia ezaguna egingo zaio askori; izan ere, Kaikuren esnearen iragarkian ikusi ahal izan dugu "Filomena!" oihuka. Hamazazpi urte daramatza Madrilen bizi izaten Venek, baina arrasatearra da. Torpedolevel antzerki taldearekin Bizkaian izan zen aurreko asteburuan.



Eneritz Tirados

ARRASATE

Eneritz Tirados diseinatzaile arrasatearrak *packaging*-eko sari garrantzitsua lortu du CDak gordetzeko sortu duen estalkiarekin. Saria Basilean (Suitza) jasoko du hurrengo urteko maiatzean. 313 proiekturen artean Eneritzek bi CD gordetzeko kartoizko estalkia saritzea erabaki du epaimahaia.



HILDAKOAK

- Martin Jauregiartzo Arriaran. Oñatin, urriaren 29an. 83 urte.
- Ana Solabarrieta Ansuaga. Arrasaten, urriaren 30ean. 77 urte.
- Jose Mari Guridi Agirre. Oñatin, urriaren 30ean. 75 urte.
- Josefa Igartua Irizar. Oñatin, urriaren 31an. 87 urte.
- Pablo Sola Campos. Bergaran, urriaren 31an. 73 urte.
- Luisa Larrañaga Amutxastegi. Arrasaten, urriaren 31an. 95 urte.
- Esmeralda Sánchez García. Arrasate, azaroaren 2an. 85 urte.
- Teresa Bernal Hernández. Oñatin, azaroaren 2an. 56 urte.
- Ciriaco Arana Pagaldai. Arrasaten, azaroaren 3an. 82 urte.
- Alberto Salas Bein. Bergaran, azaroaren 4an. 25 urte.




Laura Donoso Garcia
Arrasate • Urriaren 30a • 3,670 Kg. Gurasoak: **Agustin Donoso** (Arrasate) eta **Eva Garcia** (Aretxabaleta). Argazkian umea, amaren besoetan.



Ainhoa Ortega Gutierrez
Arrasate • Urriaren 30a • 3,330 Kg. Gurasoak: **Juan Ortega** (Kolonbia) eta **Sidney Gutierrez** (Kolonbia). Argazkian umea, amaren besoetan.




Ekain Garcia Urreta
Aretxabaleta • Urriaren 31 • 3,420 Kg. Gurasoak: **Jorge Garcia** (Arrasate) eta **Miriam Urreta** (Aretxabaleta). Argazkian jaio berria, amaren besoetan.




Victor Martin Gomez
Eskoriatza • Urriaren 31 • 3,280 Kg. Gurasoak: **Tomas Martin** (Eskoriatza) eta **Marijo Gomez** (Eskoriatza). Argazkian umea, gurasoen besoetan.



Alain Fuentes Moto
Arrasate • Azaroaren 2a • 3,840 Kg. Gurasoak: **Jose Fuentes** (Arrasate) eta **Marisa Moto** (Arrasate). Argazkian jaio berria, gurasoen besoetan.



Maddi Igartua Abadizketa
Oñati • Azaroaren 3a • 2,675 Kg. Gurasoak: **Esteban Igartua** (Oñati) eta **Josune Abadizketa** (Arrasate). Argazkian haurra, gurasoen besoetan.



Nagore Garitaonandia Uria
Arrasate • Azaroaren 3a • 4,100 Kg. Gurasoak: **Joseba Garitaonandia** (Arrasate) eta **Marian Uria** (Arrasate). Argazkian umea, gurasoen besoetan.



Joxe Iturbe eta Mari Tere Muruamendiaraz bergararrek aste honetan 40 urte bete dituzte ezkontuta. 1963ko azaroaren 4an, hain zuzen ere, ezkondu ziren. Elizkizuna Bergarako San Pedro parrokian izan zen. Ezkerreko argazkian ikus ditzakegu egun berezi hartan, pozik eta irribarretsu. 40 urte elkarrekin ez dira egunero betetzen; horregatik, etzi, domeka, ospatuko dute urteurren berezi hori familiakoekin batera. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, etxekoan partetik!

Aitor Urizar eta Arantza Fernandez de Gamboa arrasatearrak zapatuan, azaroak 8, ezkonduko dira. Elizkizuna Mondragoeko San Isidro elizan izango da 13:00etan. Bazkaltzera, osterara, Leintz Gatzagara joango da bikotea gonbidatuekin. Hango Gure Ametsa jatetxean bazkalduko dute. Goiko argazkian Aitor ageri da zapatuan, azaroaren 1ean, koadrilakoekin izan zuen agurafarian. Zorionak, bikote, eta urte askotarako! Koadrila osoaren partetik.

URTEURRENA
URTEKO PREZIORIK ONENAK!!
(ALDE HANDIAREKIN)

EROSKI BIDAIAK

EROSKI BIDAIAK Kek urteak egiten ditu, eta handikiro ospatu nahi du. Eskaintza bikainak kaleratuko ditu horretarako: Kanarietara, Karibera, Europara, Kostaldeetara... Kaleratu ahala kentzen dizkigute esku artetik. Eskaintza horiek 2004ko udaberrira arte izango dituzu! Erreserbatu itzazu orain zure oporrak. **EZ DUZU URTE OSOAN HORRELAKO PREZIORIK IKUSIKO.**

Viajes Eroski
Bidaiak

Grupo Eroski

Kalitatea Bermatuta

eskaintza gehiago www.viajeseroski.es

EROSKI BIDAIAK

INMO f3
SARE inmobiliaria

Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

SALGAI

BERGARA

- 60 m². Hiru logela, egongela, sukaldia, bainugela. Berrituta. 117.197,36 euro / 19.500.000 pta.
- 50m². Bi logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Berrituta. Erdialdean.
- Baserria salgai Osintxun. Bederatzi hektareako pinudi eta fruta-arbolekin.

ARRASATE

- 69 m². Logela bi, egongela, sukaldia, bainugela, sotoa. Guztiz berrituta.
- Erdialdean etxebizitzarako nahiz negozioarako balio duen etxebizitza salgai. Leku ezin hobean. Informazio gehiago bulegoan.

ARETXABALETA

- Erdialdean lokala salgai, etxebizitza egiteko baimenarekin. 82 m². Lehenengo solairuan dago.
- 86 m². Lau logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Berrituta. Eguzkitsua. Kanpoaldera ematen du. 20 m²-ko lokala aukeran.

ANTZUOLA

- 40 m². Bi logela, sukaldia eta egongela. Berrituta.

KROSTI
INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

BERGARA / Etxebizitza salgai

- Zubiaurre. 81 m². Bertan bizitzen hasteko gertu.
- Zubiaurren duplex txikia. Berrituta.
- Martzial Agirre. 90m². Aukera ona.
- Bidekuruzeta. 50 m². Harritzkoa.
- Osintxun etxebizitza salgai.

BERGARA / Taberna salgai eta errentan

BERGARA / Lokalak salgai eta errentan

BERGARA / Garajeak salgai eta errentan

BASERRIAK

- Osintxun 400 m² + 9 hektarea. Pinu eta fruitarbola ugari.
- Angiozarren 917 m². Oso egoera ona.
- Soraluze, Ormaiztegi, Elosu, Zegama, Legazpi.

ANTZUOLA / ETXEBIZITZAK SALGAI

- Behoko auzoa. 60m². Eguzkitsua.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Apartamentu berritua salgai. 40 m². Erdi jantzia. Erdialdean. 943 76 63 38 edo 647 56 67 96.

Aretxabaleta. Etxebizitza salgai erdialdean. 80 m². Hiru logela, egongela, sukaldia, bainugela eta hall-a. Dena kanpora begira. Bero-gailua: gas naturala. Bere-hala bizi izatera joateko. 16:00etatik 20:00etara deitu. 627 34 92 27.

Arrasate. Alde zaharrean etxebizitza salgai. 70 m². Berritzeko. 152.000 euro. 651 59 64 55.

Arrasate. Etxebizitza salgai errentan. 90 m². Garajea eta ganbara. 630 05 00 39.

Bergara. Bolun etxebizitza salgai. 98 m². Ganbara (16 m²). Hiru logela, bi bainugela, hall-a, trastelekua, sukaldia-jangela, egongela. Telefonoa: 943 76 46 58 edo 629 75 93 16.

Bergara. Etxebizitza salgai. Erdialdean. Guztiz berrituta. Eguzkitsua. 943 76 98 14.

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza emango nuke errentan. 3 logela. Guztiz jantzita. 943 79 03 83.

Arrasate. Etxebizitza alokairuan San Andres auzoan. 629 42 26 54.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan San Andres auzoan. Bi logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Bero-gailua du. 943 76 59 93.

Benidorm. Apartamentua alokairuan. Bi logela. Hondartzatik gertu. 630 41 84 65.

KROSTI
INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak

- 276.465,57 euro (49 milioi).
- Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
- Behoko solairuan: sukaldia, jangela, egongela, bainugela.
- Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
- Teiltatupeko solairua: m² ugari egokitze moduan.

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak

KAZETARIAK

behar ditu lan-poltsa osatzeko.

Baldintzak:

- Euskaraz jakitea.
- Idazten trebea izatea.

Baloratuko da:

- Kazetari titulua izatea.
- Esperientzia izatea.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE
edo posta elektronikoz: admi@goiena.com

Curriculumak aurkezteko azken eguna:
2003ko azaroaren 14a

Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK 101. SALDU 102. EROSI 103. ERRENTAN EMAN 104. ERRENTAN HARTU 105. ETXEA OSATU 106. BESTELAKOAK	2. GARAJEAK 201. SALDU 202. EROSI 203. ERRENTAN EMAN 204. ERRENTAN HARTU 205. BESTELAKOAK	3. LOKALAK 301. SALDU 302. EROSI 303. ERRENTAN EMAN 304. ERRENTAN HARTU 305. BESTELAKOAK	4. LANA 401. ESKAINTZAK 402. ESKAERAK 403. BESTELAKOAK	5. IRAKASKUNTZA 501. JASO 502. EMAN 503. BESTELAKOAK	6. MOTORRA 601. SALDU 602. EROSI 603. ALOKATU 604. BESTELAKOAK	7. ANIMALIAK 701. SALDU 702. EROSI 703. EMAN 704. BESTELAKOAK	8. DENETARIK 801. SALDU 802. EROSI 803. EMAN 804. HARTU 805. TRUKATU 806. GALDU 807. AURKITU 808. BESTELAKOAK	9. HARREMANAK 901. AGURRAK 902. HARREMANAK 903. DEIAK 904. BESTELAKOAK	10. RELAX
---	---	--	--	--	---	--	--	---	------------------

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARRASATE

GOIZ ALDE KAFETEGIAN NESKA BEHAR DA ZERBITZARI LANETARAKO. 943 79 11 15

ARRASATE

ESTETIZISTA BEHAR DA ILE-APAINDEGIAN LAN EGITEKO. 635 71 17 29

BERGARA

TABERNARAKO ZERBITZARIA BEHAR DA. 943 76 59 19

BERGARA

TERRAZADUN TABERNA ALOKAIKURAN. ERDIALDEAN. 628 03 03 75

Chiclana (Cadiz). Etxebizitza ematen da errentan. Leku ezin hobean. Hondartzatik oso-oso gertu. Gavez deitu. Telefonoa: 670 37 71 03 edo 945 25 91 75.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Erdialdean. 635 71 15 34.

Bergara. Pertsona bakarrendako etxe txiki bat hartuko nuke errentan. Telefonoa: 943 76 47 56.

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela alokatzen da sukaldia erabil-

tzeko aukerarekin. Telefonoa: 617 28 27 64.

Arrasate. Bi lagun behar dira etxebizitza osatzeko. 609 18 41 48.

2/ GARAJEAK

202. EROSI

Bergara. Garajea erosiko nuke. 680 18 53 34.

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Garaje itxia alokatzen dut. Araba Ibilbidea 27. 20 m². Telefonoa: 943 79 69 83.

Arrasate. Garaje itxia alokatzeko daukat Uarkapen. 656 76 38 28.

Arrasaten. Kontzezinon garaje itxia ematen da errentan. 943 79 55 20.

Bergara. Bazterreka kalean garajea ematen da errentan. 943 76 21 39.

Bergara. Garajejo plaza alokairuan Ibaiondo kalean. 943 76 33 54.

Oñati. Moiu kalean garajea alokairuan. Telefonoa: 615 71 53 29.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. 50 m². Komertziorako prestatutako lokala salgai. Bulegorako egokia. Leku onean. 943 79 56 42.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Neska behar da taberna baten lan egiteko. 943 79 20 82.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume eus-

KANPANZAR

Kanpanzar ondoan dagoen SARA MERENDEROAK behar ditu:

• **Pertsona bat sukaldian laguntzeko eta garbitzeko**

• **Bi zerbitzari**

Eskaintzen da:

- **Egun osoko jarduna**
- **Oporrak:**
- **-Eabonetan, 10 egun**
- **-Aste Santuan, 6 egun**
- **-Abuztuan, 3 aste**

943 77 15 86

kalduna gertu etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

Arrasate. Emakumea gertu goizez lan egiteko. 646 41 66 99.

Bergara. Emakumea gertu gauetan pertsona nagusiak zaintzeko. 645 49 91 05.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingelesko eskolak ematen dira, maila guztietan. 943 79 03 83.

Arrasate. Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrean ematen ditu. Esperientzia handia. Arreta pertsonalizatua eta maila guztiak. Matematika, fisika, kimika, marrazketa, teknologia, elektrizitate, ingeles, kontrol numerikoa. Telefonoa: 630 71 35 83.

Ingelesko eskolak ematen ditut. Ainhoa. Telefonoa: 605 76 32 72.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi A4 autoa salgai. 1.9 tdi motorra. 90 ZP. 1997koa. 200.000 km. Telefonoa: 943 77 15 98.

Honda CBR 600 motoa salgai. 1989koa. IAT (ITV) 2005era arte. 1.650 euro. 656 75 35 86.

Husqvarna DR 360 krosekotoa salgai. Enbrage berria. 1.980 euro. 679 68 04 87.

KTM EXE enduroko motoa salgai. 250 cm³. Matrikultua. 943 79 14 86.

Lau hagun (llanta) salgai. Lau torloju dituzte. Neurriak: 205-55-16. Merkeak. 636 65 25 70.

Suzuki Vitara 1.9 diesela salgai. 4X4. 1998koa. 659 11 69 38.

Vanette furgoneta salduko nuke. 1990ekoa, IAT (ITV) pasatuta, akanpadan joateko prestatuta. Prezio ona. 666 08 84 75.

Yamaha WR 400 motoa salgai. Enduro. Ondo zaindua. Osagarriak. 659 04 20 99.

602. EROSI

Mendiko motoa erosiko nuke. Montesa, Bultaco edo Ossa markakoa. Telefonoa: 656 75 76 98.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Txakurkumeak salgai, eskal artzain arrazakoak. 943 76 33 78.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

TURANDOT
Lagunak gara

Lagun berriak egin eta ondo pasatu nahi duzu? Afariak, asteburuak, irteerak, eta abar antolatzen ditugu. Ezkongabe, alargun, dibortziatu eta bananduendako. Edozein adin, izaera, klase sozial eta joerakoak.

Dei egiguzu 943 34 12 19 telefonora. Informazio guztia bidaliko dizugu, konpromiso barik.

TURANDOT GIPIZKOA

8/ DENETARIK

801. SALDU

Armairua salgai. Intxur-rondo zaharreko egurrezkoa. 1860koa. Neurriak: 2,50 x 0,80 x 0,50. Sei ate ditu. 943 79 19 23.

Casio FX 7500G kalkulagailu zientifikoa salgai. Grafikotarako pantaila. 656 75 76 98.

Casio SF-7000 agenda digitala salgai. Telefono-pantaila eta guzti. 656 75 76 98.

Esquiak eta fijazioak salgai. Atomic markakoak. Carving. 180 euro. 659 04 20 99.

Esmerilagailua salgai, bi harrikoa. Diametroa: 250. Trifasikoa. 0,70 zaldi. 943 79 19 23.

Logelako altzariak salgai. Bi oheko ohatzea (litera) eta mahaitxoak. Deitu 19:00etatik aurrera. 943 78 15 63.

Telefonoa. Nokia 7650 kameradun poltsikoko telefonoa salgai. 250 euro. 661 33 85 63.

802. EROSI

Josteko makina erosiko nuke. 943 76 38 17.

Txanponak erosten ditut, mota guztietakoak. Baita bankuko billeteak ere. Deituz gero, bila joaten naiz. 17:00etatik aurrera. 945 44 50 44.

804. HARTU

Jostailuak. Bi eta lau urte bitarteko umeendako jostailuak hartuko nituzke. Egurrezkoak edo kreatibo-konstruktiboak badira, hobeto. Deitu telefono honetara, mesedez: 635 72 22 82.

806. GALDU

Bergara. Argazki-kamera galdu nuen urriaren 25ean (zapata) autobus geltokian. Olympus markakoa da, txikia, eta zorro urdina dauka. 943 76 45 73.

Bergara. Zilarrezko esku-muturrekoak galdu nuen, San Lorenzo eta Poligono artean, orain dela bi bat aste. Ez da eskumuturreko trinkoa. Eskertuko da. (Deitu ordutegi komertzialean). Telefonoa: 943 76 50 39.

Betaurrekoak galdu nituen Arbolapetan. Segurtasunerako erabiltzen diren etxeak. Marroiak dira eta hertzetan sare moduko bat dute. Aurkituz gero, Mikeli dei egin. 619 34 88 52.

9/ HARREMANAK

903. DEIAK

Reggae/dub edo antzekoak egitea gustatzen bazaizu, gitarra, teklatu/sampler lasai bat komeni zaigu. Telefonoa: 635 72 22 82.

KALITATEA

YOSU THERMIK

Leiho isolatzaileak

- **Fabrikako prezioak**
- **Fabrikazio eta muntaia profesionala**
- **Kalitate-prezio erlazio paregabea**
- **Europako teknologia aurreratua**
- **Aurrekontuak eta aholkularitza konpromiso barik**
- **Urtebeterako finantzaketa interes barik**

Kalitate-ziurtagiria

Kataide poligonoa 4. pabilioa • 20500 Arrasate • **Tel.: 943 77 01 57**

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Heri baxena-bartara	▼	Oinetako mota	▼	Soilik
	* Deitura		Molde, taxi		
	Arrain mota	▶			
	Ematen duena	▶			
Argitzeko makila	Arerio, aurkako	▶			
* Izena	Haizu, baimendu	▶			
			Talioa	▶	
			Ikasle		
Nafarroako herria			Toka, du	▶	
Kilima			Kidea dena	▶	
Legeria	Eraikin erlijiosoa Zalantza, duda	▶			Musika tresna
					Fosforoa
					Fruitu mota
Ihi			Sententzia	▶	
Terbioa			Barazki hostotsua		
	Errenta, alokairu	▶			
	Abereak uxatzeko	▶			
Auzokoen elkarlan					
Gernua					
			Nafarroako mendia	▶	

BILABILATZ



UMOREGIROAN / Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

SAN ROKE PUXIGIAKIN
Plaentxian, Sanrokietan, santuaren irudiakin prozesiñua eitzen dabe Esoziarriño. Esan biarra dago San Rokeren imajiñak eskuan daroiala palo luze bat, puntan puxiga antzeko batekin.

Bazetozen Ezositik bueltan kaleruntz eta tope egin dabe, Plaentxiako kalietan "gigante eta kabezuduekin". Prozesiño batek diño:

- Eztaok deretxorik!
"gigante ta kabezuduekin" tope eñ bihar.

Beste batek erantzun zetsan:

- I, berau be zelan joiak?
Puxigia eskuan daroiala.

TXALTXANIAN KAFIA
Afalostia zan. Bazeguan Patxiko Txaltxanian kafia artzen. Orretan etorri jako Markiegi sastia, eta esaten detsa:


- I, Patxi, Durangora jua bihar juau pelota partiduak ikustera. Neuk pagauko deuat entradia eta taxis.

Ori esan bezañ laister, atara zeban Markiegik polsikitik billete pillua.

Orduan Patxikok:
- Ezetzak andriari diru asko laga!

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Gipuzkoako lau eskualde hauetako zeinetan edo zeintzuetan bizi da Debagoienean baino jende gehiago?

Gipuzkoa, Eustaten datuetan, zazpi eskualdetan banatuta agertzen da: Bidasoa Beherea, Debabarrena, Debagoiena, Donostialdea, Goierri, Tolosaldea eta Urola-Kostaldea. Horietako zenbait Debagoiena baino askoz jendetsuagoak dira, baina badira biztanle gutxiago dituztenak ere. Asmatuko ote zenuke jarraian datozen lau eskualdeetan zeintzuk diren Debagoiena (Aramaio gabe) baino jendetsuagoak (2001eko erroldaren arabera)?

- Goierri • Tolosaldea • Debabarrena • Donostialdea

Erantzun zuzena: Goierri (63.510) eta Donostialdea (311.398). Debabarrena 54.228 bizilagun zituen eta Tolosaldea 44.344. Debagoienak Aramaio kontatu gabe 62.010 bizilagun zituen eta Aramaio kontatuta 63.476.

SOLUZIOAK



O	N	U	•	A	X	I	P	
N	A	L	O	Z	U	A	•	
A	R	U	A	K	•	B	T	
I	A	P	E	•	I	Z	•	
P	•	I	D	E	G	L	E	
•	A	Z	I	L	•	•	•	
I	L	I	K	I	L	I	K	
K	I	D	•	A	I	Z	•	
L	T	•	V	M	Z	U	L	
I	A	I	S	E	T	•	Z	•
O	P	A	Z	•	•	•	•	
S	O	J	A	S	R	O	J	
•	Z	•	H	•	•	•	•	

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Une honetan autoestimua oso ahul duzu eta segurtasunik ez sentitzen duzu. Horrez gainera, azkenaldian ez zaude batere gustura egiten duzunarekin. Lasaitzen ahalegin zaitze.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Norbaitek inbidia dizu eta zutaz gaizki esaka ari da. Ahalegin zaitze gauzak bere lekuan jartzten, berandu baino lehen. Bestalde, familiarteko batek arazoak izango ditu.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Gauzak ez dira zuk nahi bezala irten, baina ezin zara kezatu, azken baten zortea alde duzu-eta. Hainbat bidaia egingo dituzu lan kontuengatik.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Osasun arazoak direla-eta ohean egon beharko duzu hainbat egunez. Bestalde, seme-alabaren batek arazoak ditu, baina errieta egin baino lehenago, ahalegin zaitze harekin berba egiten.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Hainbat lan bidaia egingo dituzu, eta oso positibak izango dira. Izan ere, oso une aproposa da kontratu onak sinatzeko eta akordioak egiteko.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Lanean sekula baino hobeto irtegu zaitu dena; horren ondorioz, diru gehiago irabazteko eta ospe handiagoa lortzeko aukera izango duzu, baina hori guztiari edukitzeko aisialdiko denbora murriztu egin beharko duzu.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Arazoei aurre egin behar diezu. Kontua ez da zure arazoak lau haizetara zabaldu eta jendearen errukia bilatzea. Ez zaitze tematia izan eta lagunaren aholkuei kasu egiezu, hainbat arazo konpontzeko guttiz baliagarri izango dira-eta.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Aisialdia gura duzuna egiteko da, eta ez beste batzuek inposatzen dizutena egiteko. Bestalde, neska bazara, arazoak izango dituzu sexu-organoetan, eta ginekologoarengana joan beharko duzu.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Orain arteko jarrera harro eta despotarekin segitzen baduzu, lagun guztiak galduko dituzu. Hortaz, ahalegin zaitze atseginago izaten, denen beharra izango duzu-eta proiektuak aurrera ateratzeko.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Zorte handia izango duzu, batez ere diru kontuetan, baina horrek ondorio kaltegarria izan lezake: diruzalekeria. Argi ibili, lagunak betiko dira, dirua ez.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Une txarrak bizi izaten ari zara, eta deprimituta sentituko zara. Agian, zeure buruari galdetu beharko diozu egiten ari zarena ondo dagoen edo beste helburu batzuk markatu behar dituzun.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Familiarteko arazoak izango dituzu, eta horren ondorioz denbora luzeagoa eman beharko duzu familiakoekin. Lana alde batera utzi beharko duzu. Hasieran gogorra egingo zaizu, baina epe luzean onargarria izango da.






Prestige
MARTITZENA 11 / 20:30

Duela urtebete hasi zen 'Prestige'-n hondamendia

Urtebete beteko da etzi *Prestige* petroliontzia Galiziako kostan hondoratu zela. Programa berezi honek hondamendia bera, orduko egoera, inguru beltzak eta bazter guztietatik joandako lagunena lana bilduko ditu.



Txintxaun
EGUAZTENA 22 / 20:30

Portaventurarako bidaia lortzeko lehian

Sari potoloa dago jokoan *Txintxaun* haurren programan. Portaventurarako bidaia, hain zuzen ere. Eta hori lortzeko, lehiaketan parte hartu eta jokatutako egin behar da. 10-11 urte inguruko haurrak gogor saiatuko dira horretan.



Sarrera Doan
EGUENA 13 / 20:30

Agenda kultural zabala eta Zegamako ehungintza

Inguruko erakusketak, kontzertuak, antzezlanak, disko berrien aurkezpenak eta filmen analisiak. Dena sartzen da agenda kulturalaren barruan, eta sarrera doan da. Zegamako ehungintza tailerra ere erakutsiko digute.



Berriak
EGUNERO / 14:30-20:00

Debagoieneko notiziak egunero GOITBn

Debagoieneko notiziak biltzen dituen egunero GOITBko albistegi zerbitzuak. Egundian Gorka Etxabe kazetariak kontatzen ditu goizean jazotakoak eta iluntzean, berriz, Deiane Arrietak biltzen dituen eguneko berriak.

TELEBERRIAK

'Canal Vasco News' albistegia Amerikan ikusiko dute oraingo astetik aurrera

Amerikara satellite bitartez bidaliko dute oraingo astetik aurrera albistegi berri hori. Oraingo astean bertan jarri dute abian albistegi berezi hori, eta Amerikako lau milioi etxetan ikusi ahal izango dute. Egundian emititzen dute albistegi hori, 14:30etik 15:00etara. Jonan Apaolaza, Ana Urrutia eta Aitzol Zubizarreta dira aurkezleak eta editoreak.

Printzearen gaineko saioa, EAEn ere ikusienetakoa izan zen

Espainiako printzearen eta Letizia Ortiz kazetariaren arteko konpromisoak oihartzun izugarria izan du Espainiako Estatuko komunikabideetan, eta zer esanik ez telebista kateetan. Domekan, EAEn ere saio ikusienetakoa izan zen, gai horren gainean TVEko lehen katean emititua zuten saio berezia. Bigarren saio ikusiena izan zen, hain zuzen ere: 217.000 lagunek ikusi zuten. Lehen saio ikusiena, berriz, *Gran Hermano* izan zen, 226.000 ikuslerek.

Iragarleek hasi dute jostailuen kanpaina, Gabonei begira

Oraindik hilabete eta erdi geratzen den arren, publizitate tarreak jostailuz betetzen hasi zaizkigu dagoeneko. Gabonetako jaiak begira, iragarleek garaz hasten dute kanpaina. Jostailuen iragarriak izaten dira nagusi, baina Gabonetako jakien eta beselako oparien iragarriak ere ez dira falta izaten.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Azaroaren 7tik 13ra

EGUBAKOITZA 7	ZAPATUA 8	DOMEKA 9	ASTELEHENA 10	MARTITZENA 11	EGUAZTENA 12	EGUENA 13
13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Goienan 15:00 herriz-herri: Arrasate 16:00 Sarrera doan 16:30 Harmailatik berezia: Reala-Juventus 17:00 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Goienan 15:00 herriz-herri: Arrasate 16:00 Sarrera doan 16:30 Harmailatik berezia: Reala-Juventus 17:00 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Prestige: urtebete eta gero 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:00 Prestige: urtebete eta gero 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:00 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera
19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera			19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Prestige: urtebete eta gero 21:00 Gaurkoak 21:15 Prestige: urtebete eta gero 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 22:30 Prestige: urtebete eta gero 23:00 Gaurkoak 23:15 Prestige: urtebete eta gero	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Iluntzean 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Iluntzean 23:45 Emisio amaiera
21:15 Soinuz blai			21:15 Harmailatik tertulia	20:30 Prestige	20:30 Txintxaun	21:15 Iluntzean

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95

KAMERA AURREAN



"Mendikoik antolatzen dituen ikastaroetako batzuk Arrasaten eskainiko ditugu Debagoieneko baserriarrentzat. Zabalik dago izena emateko epea".

Joseba Ugalde / Arrasateko zinegotzia
BERRIAK (2003-11-04)



"Bi helize dituen helikoptero batek hementxe hartu zuen lurra eta 20 soldadu inguru jaisi ziren. Gero kaminotik behera joan ziren eta helikopteroa Gasteiz aldera".

Jose Ramon Beitia / Apotzagako bizilaguna
BERRIAK (2003-11-05)

TELEBEGI / Unai Loidi

Eramangaitza

Politikoen "garapen jasangarria" kontzeptua deskubritu zutenetik, hitzetik hortzera darabilte euren diskurtsoan. Dena egiten dute beronen izenean. Aurrera ei doan herri honetan, erakundeek ere ederki ikasi dute "garapen jasangarriaren" bedekiazioarekin telebistan kanpaina oso berdeak egin daitezkeela, euren burua zuritzeko jakina, baita horretarako umeak erabili behar badira ere (umeak erabiltzea ulertu ezazue, mesedez, zentzurik txarrean, *ingurumena.net* anuntziokoen egiten duten moduan). Botere politiko eta ekonomiko, ingurumenarekiko errespetu gutxiko proiektuen bultzatzaile handienak, ekologista azaltzen dira telebistan; eta oso solidario; eta berdintasun zale; eta integrazioaren aldeko... Jaurlari-tza bera ia-ia ONG bihurtuta (barkatu! GKE).

Euskaltzaindiak dio gaztelarazko "desarrollo sostenible" esateko garapen eramangarria dela formarik egokiena euskaraz. Berdin dit. Eramangaitza eta jasangaitza egiten zait dena.





BRICOCENTRO

Zure brikolaje denda

Uribarri auzoa B2 - S3 ARRASATE ORDUTEGIA: 10:00 - 13:30 eta 16:00 - 20:00 Zapatu arratsaldeetan irekita



Zulagailu kolpatzailea mailuarekin
Apurtzailea / 850 W / Osagarriekin
69,90 € / 11.630 pta.



Zulagailu elektronikoa
Kolpatzailea / 600 W
18,00 € / 2.995 pta.



Lixagailu orbitala
90 x 187 mm / 135 W
18,00 € / 2.995 pta.



Esmerilagailu konbinatua
Sikua/Umela / 400 W
49,90 € / 8.303 pta.




Inguratzeko zerra
350 W / Abiadura bakarra
18,00 € / 2.995 pta.



Zulagailu torlojutzaila
14,4 V-ko bateria
34,90 € / 5.807 pta.



Disko-makina
115 mm / 500 W
18,00 € / 2.995 pta.



Fresatzeko makina kaxarekin
12 fresa / 1.020 W
69,90 € / 11.630 pta.



Arrabotatzeko makina elektrikoa
600 W
34,90 € / 5.807 pta.



Eskorga tolesgarria
Aluminiozkoa / 120 kilo
26,90 € / 4.476 pta.



Eskorga tolesgarria
150 kilo / Plataforma
21,90 € / 3.644 pta.



Lan-mahai tolesgarria
Baraila
17,90 € / 2.978 pta.



Argi-kanoia 1.000.000
Kandelak 55 W-koak
14,90 € / 2.479 pta.

Atzeskua

LEIRE KORTABARRIA

Ane Lizaur/ Ekintzaile eta autonomoa

Lanbidea zein duzun galdetzen dizutenean zer erantzuten duzu?

Enpresaburu?

Esaten diet *autonomoa* naizela. Enpresaburu izateko oraindik bidea falta zait. Gauzak joan diren moduan joanda, badut jendea enplegatzeko beharra, baina beldurra ematen dit urrats hori emateak.

Baina, zuk esan bezala, gauzak oso ondo joan zaizkizu eta garbitu ederra eman diozu Oñatiko garbiketa alorrari!

Iaz, maiatzean, GAK enpresa sortu nuen. Lokalak, egoitzak, enpresak... garbitzen hasi nintzen. Gero, konponketa lan txikiak ere eskaintzen hasi nintzen, lagun batekin: pintatzea, iturgintza... lantxoak. Hirugarren zerbitzua da administrazioa: atarrietako bilerak, deiak, ordainketak... Oñatiarrek ondo erantzun dute, bai; batez ere, garbikuntza zerbitzuak izan du arrakasta handien.

Enpresa ekimen guztien inguruan ezinbestekoa da jakitea zelan buru-

ratu zitzaizen ideia ekintzaileei...

Kontua da ni lan batetik beste batera ibiltzeaz asperasper eginda nengoela. Lantegi batetik deitzen zidaten, sei hilabetez-edo lan egiten nuen, eta gero, akabo, berriro deitu arte. Ordurako banuen zerbait egiteko burutazioa, baina ez nuen uste egokia aurkitzen. Oñatiko Udaleko Jesus Mari Ugarte enplegu sustatzaileak izugarri lagundu zidan, eta hark eman zidan azken bultzada. Aspiragailuak eta zorua garbitzeko makinak erosi eta hor ibiltzen naiz gora eta behera horiek.

Horrelako zerbitzu baten premia bazegoela, hortaz.

Neuk hutsune hori ikusten nuen; Oñatin, behintzat. Etxeko administrazioari dagokionez, esaterako, lehen jendeak bere kontura egiten zuten, baina nik uste dut gaur egun, batez ere gazteek, utzita samar izaten dute-

la. Baina garbiketa alorrean ere bazegoen hutsune hori, bai. Izandako harrera ona ikusita, nire buruari esaten diot ez zela nik uste bezain ideia xelebrea, ez horixe!

Kontaiezaguzi zein den garbitzaile eta administratzaile on baten sekretua.

Ardura handia behar da, eta konstantzia handia. Jendeak jakin behar du hor egongo zarela euren esanetara; guztiakin ondo konpondu behar duzu... Bestalde, egia da jendeak egindako lanagatik ere zoriondu izan nauela.

Zoriontzeaz gain, ziur nago jende askok esango zizula adore handia izan zenuela enpresa hori sortzeko...

Hori esaten didatenean erantzuten diet nik ez dudala aparteko adorerik, baina hemen nagoela! Oso inkontzientea izan nintzen honekin; hasieran ez nekien non sartzen ari nintzen ere.



“Aspertuta nengoen lan gorabeherekin, eta garbiketa, administrazio eta konponketa enpresa sortu nuen iaz”

“Lan hau egiteko ardura eta konstantzia handia behar direla uste dut”

“Autonomotzat dut nire burua; enpresaburu izateko bidea falta zait”

► Oñati / 39 urte / GAK enpresa sortu du

PIPERRAUTSA

Alokatu

Denok entzun ditugu edo ezagutu kasu beldurgarriak etxebizitzak alokatzeari buruz. Maizterra pisutik ateratzeko zailtasun izugarriak izan dituen nagusiarena, edo urte luzez hutsaren hurrengo alokairua kobratu behar izan duenarena, edota maizterra joan ondoren etxea zerri eginda aurkitutako kasua, besteak beste. Egia da frankismotik zetorren legeak bereziki babesten zuela maizterra, eta horrek eraman du pisu jabe asko ez alokatzerara. Ondorioz, alokairuen prezioak izan dute alimaleko igoera, alokatzea beste erremediorik ez den tokietan. Debagoiengan, esaterako.

Hargatik, interes handia du Eusko Jaurlaritzaren programa batek, *Bizigune* izenekoak, bere helburua delako alokairuen merkaturian bitarteko lanak egitea jabe eta maizterren artean, eskainiz arauen zaintza eta betebeharren bermea.

Visesa enpresa publikoak hartuko ditu pisuak alokairuan. Hau bera arduratzen da babes ofizialeko etxeak sustatzeaz, eta pisu jabeak Visesarekin izango ditu harreman guztiak, kontratua eta kobrantzak. Horrela sortuko da alokairuko pisuen parkea, eta hauek alokatuko ditu *Etxebide* Jaurlaritzako zerbitzuak, babes ofizialeko etxeak saltzen dituen bezala. Bermea jabearentzat eta bermea maizterrentzat.

Modu egokia da askoren etxe premia ezkontzeko hutsik dauden etxeekin, alde guztiak irabazten dutelako. Ordua da jarrerak aldatzen hasteko.

MIKEL IRIZAR

Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
 Tel.: 943 71 63 22
 Faxa: 943 78 15 51

